



Aralar Elkartearen egunak Aritz eta Sakanako herritarrek elkartuko ditu mendigainean igandean / 7

Bihar Aitzkozar lasterketa Iturmendin eta etzi Tritoiena mendigainean lasterketa Arbizon / 13 / 15

Irurtzun-Arakil eta Domingo Nagore Memorialeko finalak Irurtzunen bihar izanen dira / 18

Irurtzongo, Amati eta Ametza abesbatzek kontzertua egiten dute gaur, 20:00etan, San Martin elizan / 21

Trasteandok kontzertu solidarioa egiten du Milakolore elkarteko kideekin bihar, 19:30ean, Iortian / 21



Adingabeendako telefonoa da senideekin harremana mantentzeko bitartekoa.

Etorkizun hoberako bidaia

Sorterriak ez die etorkizun onik eskaintzen. Eta, horregatik, etxea utzi eta migratzea erabaki dute erreportaje honetako protagonistak. Ez dituzte 18 urte bete. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak dira. Eta euren migrazioak Sakanara ekarri ditu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Altsasuko Otadiako Kristo Deuna aterpean bakarrik dauden 31 adingabe atzerritar izan ziren pasa den larunbatera arte. Eta haiekin hainbat hezitzaile ere. Aterpeak duela urtebete hitzartuta zuen erreserba batek mugiarazi ditu 28 gaztetxo marokoar, bi ghanar eta gambiarra. Baina Sakanatik Nafarroako beste toki batera alde egin aurretik haiekin hizketatzeko aukera izan genuen.

Bashir (erreportajea ageri diren mutilen izenak ez dira benetakoak) Marokoko Ujda hiriko

da. Milioi erdi biztanle dituen hiria Aljeriako mugatik 15 km-ra dago, Rifan. 13 urte zituela erabaki zuen alde eginen zuela: "nire familia gaizki pasatzen ari zen, ikasteko liburuak erosteko dirua ere ez zuten. Gaizki zeuden. Aita gaixorik. Pentsatzen hasi nintzen Espainiara etortzea, etorkizun hobe izateko".

Errachidia (92.000 biztanle) Maroko erdialdean dago, ekialdean, basamortuko aurreneko dunetarako bidean. Hangoa da Hazin. 13 urterekin erabaki zuen hiritik alde eginen zuela: "Ma-

rokon ez dago lanik. Dauden lanpostuetan lan handia egin behar da diru gutxi irabazteko". Hiria uztea erabaki zuten Samir eta Zahir ere Errachidiakoak dira. Azken horrek 15 urte zituela erabaki zuen sorterria utziko zuela. "Lan egin nahi dut eta etorkizun ona izan. Sorterrian ezin da". Bere familiari migratzeko asmoaren berri eman zion. Etxekoek 4.000 euro bildu zituzten patera ordaindu zezan.

Rafiq, berriz, Casablancakoa da (4,3 milioi biztanle). Zerbait egiteagatik gurasoek zigortu

egin zuten eta etxetik alde egitea erabaki zuen 17 urterekin. Etxekoek ez ziren bere migratzeko asmoen berri eman.

Alde egitea

Bashirrek gaur egun 16 urte ditu. Egund batez etxetik goizeko seietan atera zen eta ez zen gehiago bueltatu. Berarekin batera beste 29 adin txikiko mutiko abiatu ziren Udjatik Melillarantz. Kamioien eta autobusen azpian ezkutuan sartuta egin zuten bidea. Bashirrek aitortu digu Melillan sartzea ez zela erraza izan: "hesia saltatu behar duzu. Hirugarren saiakeran lortu nuen, soka handi batekin. Mozketa txikiren bat izan nuen. Marokoko polizia harrapatzen bazaitu jotzen zaitu. Espainiakoak ere jotzen zaituzte. Udaltzainek ez dute jotzen". Hesia gaitzuta, atxilotu egin zuten eta gela batera eramane zuten eta Espainiako itsasontzia joan ondoren aske utzi zuten.

Hazinek etxean esan zuen alde egiteko asmoa zuela. "Geldi, geldi esan zidaten. Dirua eman nahi zidaten pateran etortzeko. Migratzea garestia da". Familiak dirua lortu zuen: 4.000 euro. Haren moduan egin zuten Samirrek eta Zahirrek, Errachidiatik Tangerrera joan ziren. Rafiq autobusez iritsi zen Tangerrera.

Itsasartea zeharkatzea

Itsasontzian sartzeko Bashirrek bi bide daudela azaldu digu: kamioien azpian itsasontzian sartzeko edo hondartzatik joz itsasontziko sokatik gora eginez. Berak, azkenean, Melillatik beharrean aldameneko Beni Ansarretik atera zen Espainiarantz. Itsasontzira autobus baten azpiei helduta sartu zen, "gogorra izan zen, baina ez zen ezer pasatu". Horretarako, eskanerra, polizia-

ALTSASUKO ATERPEAN EGON DIRENAK GUSTURA EGON DIRA, EZ DUTE EZER FALTAN SUMATU


ren kontrola eta haien txakurren miaketa pasa behar izan zituen. "Harrapatzen ez zaituztenean, itsasontzira igotzen zara, eta kitto. Aparkalekuan itsasontziz aldatu zaitezke". Almeriarako itsasontzia hartu zuen berak, baina Murtzian jaitsi zen.

16 urterekin Hazim Tangerren, familiak bildutako dirua aldean zuela. "Patera eta motorra erosten duen buruzagi bati pagatzen diozu. Gauero bat edo bi patera ateratzen dira". Hazimek aurreneko saialdian lortu zuen itsasartea zeharkatzea. "Beste batzuk hiru edo lau saiakera egin behar izan dituzte. Nik aurrenekoan migratu nuen". Bere pateran 37 pertsona gurutzatu zuten itsasartea. 14 orduko itsas-bidaia izan zen. Bide erdia lasai egin zuten, baina beste erdian itsasoa zakartu zen. Hazimek pateran grabatutako bideoa gorderik du.

Gauz iritsi zen Tangerrera Rafiq eta kamioi baten azpian jarrita itsasontzira sartzeko lortu zuen, bigarren saiakeran. Horrela iritsi zen Algecirasera. Samirrek Tangerren patera hartzeko saiakera ugari egin zituen. 5.000 euro pagatu behar izan zituen itsasartea zeharkatzeko. Zahirrek han bi aste eman zituen, itsasartea gurutzatzea lortu zuen arte. Lau saiakera egin zituen pateran: aurrenekoan itsasontzia zulatu eta ondoratu egin zen, beste bitan polizia eragotzi zien.

Penintsulan


Murtzian kamioi azpitik atera eta Marokoko turista batek jatekoa eta dirua eman zion. Murtziako adingabeoen egoitza batera jo zuen Bashirrek. Han bost hilabete eman zituen eta gaztelania ikasi zuen. Handik Donostiara jo zuen eta Nafarroara iristeko. Algecirasera iritsi zen Hazim, eta handik Bilbora jo zuen, lehengusu baten etxera. Han aste bat eman ondoren Iruñera joan zen. "Errachidiako mutilek esan zidaten Iruñera joateko, ongi zegoela. Herriko mutilak dagoeneko pisuetan daude". Hazimek ere pisu batera atera nahi du, horregatik, orain gaz-




EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com


KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com







Etxe pasiboetarako egokia



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aperteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

telania ikasten ari da. Eta hezi-zaileekin oso ongi moldatzen da.

Algecirasen egun bat eman zuen Rafiqek. Kamioi batean muntatuta iritsi zen Sevillara. Mutiko batzuk dirua eman zioten eta horrekin poliziari hots egin zion. Egoitza batera eraman zuten eta han astebete eman zuen, beste egoitza batera lekualdatu zutelako. "15 egun eman nituen eta hanka egin nuen. Ez zen egoitza ona. Ez zegoen ez jarduerarik ez ezer. Madrilera joan nintzen. Gau batez kalean lo egin nuen". Dirua lortu eta Zaragozara joan zen Rafiq. "Ez zitzaidan gustatu, lapur asko daude. Lagun batek esan zidan Iruñean ez dagoela lapurrik, hobe zela". Duela 17 egun iritsi zen Iruñera. Casablanca Iruñea bidaiari hilabete eta aste batean egiten ondoren, aterpean ongi dagoela esan digu Rafiqek. Samir Algecirasera iritsi eta zentro batean astebete eman zuen. Handik beste egoitza batera pasa zuten. 15 egun egin zituen ihes egin eta Donostiara alde egin zuen arte. Handik Bilbora jo zuen eta 15 egunen ondoren Iruñera iritsi zen sorterritik abiatu eta hiru hilabetera. Aterpean ongi dagoela dio.

Algecirasera iritsi eta larrialdi gunean sartu zuten Zahir, handik Sevilla ondoko egoitza batera lekualdatu zuten. Bi egunen buruan egoitza ihes egin zuen, meskita batean dirua eskatu eta Bilbora joan zen. Handik Iruñerako bidea hartu zuen, etxetik atera eta hilabete eta bi astetara.

Ametsak

Aterpetik tutoretzapeko pisu batera atera nahi dute guztiek. Bashirrek Lanbide Heziketako gradu bertan bat ikasi nahi du, ile-apaintzaile edo auto-mekanikaria, horiek ditu buruan. Eta Osasuna moduko taldean futbolaria izan nahi luke. Sorterrian jokatzeko zuten eta Frantziaren kontrako partida baten ondoren, joateko eskaintzak jaso zituen, baina berak jarri behar zuen dirua, eta ezin.

Hazimek auto-mekanikaria izan nahi luke, horregatik, ikasteko asmoa du. Bere zaletasuna saskibaloia da eta kirola praktikatu nahi luke. Europaz zuten irudia behin hemen hoberako egin duela esan digu. Rafiqek elektronika ikasteko asmoa du. Horregatik, ari da orain gaztelania ikasten. Casablancan Batxilergoa ikasten ari zen eta ikasle

ona zela dio. Boxeo-zalea da, hemen ere entrenatu nahi luke.

DBHko 4. mailan ikasten ari zen Samir sorterrian. Hemen ikasten segitu nahi luke. Sorterrian praktikatzen zuen eta hemen karate irakaslea izan nahiko luke. "Algecirasen ez zuten Europaren itxurarik. Bilbora iritsi arte ez nuen sentitu Europaren nengoela". 16 urteko Zahirrek gaztelania ikasi ondoren auto-mekanikari ikasketak egin nahi ditu. Futbol-zalea da eta jokatzeko segitzeko asmoa du. Aterpean gustura dago. Europaz zuten irudia bertan egonda hobe da harendako.

Etxeokoin

Bashirri lagunek esaten ziotenez, "hemengo ongi dago, nahi du zuna egin dezakezu, gustatzen zaizun guztia dago. Gustura gauden hemen, ongi". Etxeokoin telefono bidezko harremana du. "Ongi daude. Eta ongi nagoen galdetzen didate". Bera penintsulan zegoela hil zen aita eta orduan bueltatu nahi izan zuen etxera, baina ez zuen egin.

Orain artekoak merezi duela dio Bashirrek. Bere hiritik mutikoak ateratzen segitzen dute: "hamar iritsi berri dira". Bera-ekin batera atera ziren 30 haiek batekin besterik ez du harremanik, Alemanian dagoenarekin. Altsasuko aterpean egon diren bitartean gaztelania eskolak jaso dituzte mutikoek. Bashirrek ongi dakienez, itzultzaile lana egiten du klaseetan eta aterpean. Baita gurekin ere.

Hazim etxeokoin telefonoz hizketatzen da. Orain arte bizi izan dituenak merezi izan duela esan digu. Hazimi ez zaio sekula etxera bueltan joatea bururatu. Rafiq ere etxeokoin harremanetan dago. Bere familiak ez zuen bera etortzerik nahi, baina azkenean onartu dute eta ezer ez dela pasatzen esan diote. Migratzearen ideia ona dela uste du. Aurreneko astean pasa zitzaion bueltako bidea hartzearena, baina dagoeneko ez du horretan pentsatzen.

Familiakoek Samirri ongi dagoen galdetzen diote telefonoz aritzen direnean. Ongi dagoela aitortu digu. Ez zaio sekula burutik pasa etxera bueltatzea. "5.000 balio zuen, nola bueltatuko naiz! Etortzeak merezi izan du." Zahirren etxeokoin "pozik" daude ongi dagoela ikusten dutelako. Atzera egiteko tentaziorik ez du izan eta bidaiak merezi izan duela uste du.

"Badakite, ikasi gabe ez dute ez lanik ez ezer"

ASIER IZAGIRRE ASKARGORTA HEZITZAILEA

Nafarroako Gobernuaren ardurapean daude bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin aritzen den hezitzaile taldeko kidea da altsasuarra

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin hezitzaile ari zara. Noiztik?
Hilabete eta aste bat.
Etxean lanean.

Altsasun, bai. Oso pozik nago. Gizarteratze goi gradua ikasi nuen Gasteizen, eta ikasi dudarekin etxean lana izatea gozatu da.

Zein da zuen egitekoa gazteekin?
Muga pasatu eta bakarrik heldu dira. Gure lehentasuna paperak eskaintzea da, Espainian legez egoteko. Gainera, gehienek oso denbora gutxi daramate penintsulan, eta gaztelania ere irakastea.

Baina egunak 24 ordu ditu?

Ramadana bukatu berri da eta hilabete pixka bat mugitua izan da. Beraiek gauz bizi ziren. Orain 09:00etan esnatzen ditugu. Goizetan jarduerak egiten ditugu: batzuk igerilekura joaten dira, beste batzuk rokodromora, paseatzera... halako jarduerak egiten ditugu. Goizez ere gaztelera klaseak ematen dizkiegu. Biltokira bazkaltzera joaten gara. Arratsaldean gauza bera. Dauden gazte guztiekin lau talde sortu ditugu eta egunero talde bat Iruñera joaten da, aisialdi modura. Lau taldeak txandakatzen doaz guztiek aukera izateko.

Paperak lortu eta gaztelania ikasten dutenean, zein irtenbide dute gazteek?

Kudeaketaz arduratzen den enpresa honek gazteak sailkatu egiten ditu: hau oso autonomia da, honek ez daki gaztelaniaz... Sailkatu egiten ditugu gero beste baliabide batera joan daitezten.

Sailkapen horren arabera...

Batzuk joanen dira ikastera, besteak tutoretzapeko pisu batera, beste batzuk, akaso, ohiturak hartzeko egoitza zorrotzagoa beharko dute... Hori da gure lana, sailkatzea eta ikustea zeinek duen ikasteko asko eta zein ezin den hemen egon. Denetarik dago. **Zenbat gazte dituzue?**



Asier Izagirre Askargorta hilabete eta aste bat darama adingabeekin lanean.

"HAIEN ISTORIOAK ENTZUTEAK PENTSARAZI ETA AURREIRITZI ASKO KENTZEKO BALIO DU"

Momentu honetan 31, denak mutilak. Marokotik orain hasi dira neskak ateratzen baina, normalean, mutilak ateratzen dira. **Eta kontaktzen dituzten istorioak...** Ufff... Pentsarazten dizute. Aurreiritzi asko kentzeko balio dute. Kristoren istorioak dituzte. Oso gaizki pasatu dute. Hona etorri diren gehienek gosea pasa dute. Ez dira etortzen... Haiek kontziente dira hona etorrita ikasteko, lan egiteko eta Marokora dirua bidaltzeko kristoren aukera dutela.

Nahi hori nabari zaie?

Bai, uneoro. Galdetu genien aurreneko gauza izan zen, zer egin nahi duzue. Eta denek: ikasi, ikasi... Denek ikasi nahi dute. Han ere ikasten zuten? Askok Batxilergoa dute. Analfabeto bakarria dugu, Marokoko eskualde batekoa da eta han ez ziren eskolara joaten.

Ikasketak baliozkotu ditzakete?

Ez dakit.
31 mutil horiekin zenbat hezitzaile zaudete?

10 hezitzaile, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan.

Moldatzen zarete?


Bai, ongi. Hauek ez dute arazorik. Kontziente dira gu garela aukera ematen ari gatzaitzkie. Figura inportantetzat ikusten gaituzte. Konfiantza handia eskaintzen digute. Oso ongi.

Zein adinetakoak dira?

Denetarik dago. 12 urte zituztenak ere izan dira. Dagoeneko ez daude hemen. Gehienak mugan daude, 17 urterekin. Askok beldurrez daude 18 urte betetzean baliabidea bukatzen delako. Gehienak 14, 16, 17 urte dituzten hamar ditugu.

Asmoak garbi, aprobetxatzen ari da?

Bai. Pasada bat da. Igerilekura joateko gehiago kostatzen zaie agian, baina ikasteko batere ez. Badakite ikasten ez badute dutela ez lanik ez ezer ez, hemen lana aurkitzeko ikasi egin behar da. Orain leku aldatuko gaituzte baina dinamika bera izanen da. Ez Altsasun, baina disfrutatzen segituko dut.



Mikel Gurbindo Marin, Nafarroako Gobernuako Haurren eta Familiaren Zuzendariordea. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAK

Erantzun azkarra emateko lanean

Giza eskubideen araudiei jarraikiz, azken aldian kopuruan gora egin duen bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari erantzuteko baliabideak sortzen ari da Nafarroako Gobernuak. Behin behinean izan ziren Sakanan eta, antza, egonen dira

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Jarduneko Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuaren haurrak babesteko garatutako dekretu bat onartu zuen asteazkenean. Ezohiko neurri horren bidez, departamentuak bakarrik dauden adingabe atzerritarren etorrera handiagoari erantzun nahi dio. Nafarroako Gobernuaren lege betebeharra da hori, hala jasotzen baita 1989ko Haurren Eskubideen Adierazpenean, nahiz haurrak babesteko Estatuko eta nazioarteko araudi espezifikoetan ere. Nafarroako Gobernuako Haurren eta Familiaren Zuzendariordea da Mikel Gurbindo Marin. Bera arduratzen da bakarrik dauden atzerriko adingabeen egoeraz. Azaldu digunez, orain arte 173 adingaberi eman diete arreta, "programa antolatuta bati jarraituz baliabide-sare batean banatuta

daude". Erantzun azkarra emateko lanean ari direla azaldu digu, beti ere, adingabeen arreta eta laguntza integrala bermatzeko eta erabateko gizarteratzea eta laneratzea lortu asmoz. Emaizta onak lortzen ari omen dira.

Sistema egokitu beharra

Zuzendari-ordeak aitortu digunez, "bakarrik dauden atzerriko adingabeen etorrera nahikoa aurreikusitako gabea izan da, batez ere, bolumenari eta fluxuen intentsitateari dagokionez (urte hasieran 40-50 zeuden, apirillean eta maiatzean 79ra iritsi ziren). Horrek

"SEI HILABETEETAN BALIABIDE-SARE ESPEZIFIKOA SORTZEN ARI GARA. GENUENA 15 URTE KOSTA ZEN"

orain arte haurrak babesteko genuen esku-hartze sistema birpentsatzea ekarri digu. Haurrak babesteko esku-hartu ohi dugu tratatu txar fisikoa, abusua, eskean aritzera behartzea, abandonua edo gurasoen ajolagabekeria handia dagoenean. Halakoak jakitean esku hartzen dugu, eta larritasunaren arabera baliabide bat edo beste erabiltzen dugu".

Bakarrik dauden atzerriko adingabeen kasuan, gurasorik eta senide den pertsona heldurik ez dute ondoan. Legeak dioenez, halako kasuetan administrazio publikoa da haur edo gazte horietaz arduratu behar dena. Beraz, Nafarroako Gobernuak haien babesgabetasuna deklaratu eta tutoretza hartzen du, haien behar guztiak bermatzeko: etxebizitza, elikadura, arropa, hezkuntza, integrazio prozesu normalak... Oinarrizko beharren estaldura

hori guztia eskaini behar du. "Orain arte genuen sistema ongi izatea 15 urte kostatu zaigu, orain bat sei hilabeteetan sortzen ari gara baliabide-sare espezifikoak".

Babeserako sistema normala kasu horietarako egokiena ez zela ikusten zuten, profil desberdinak direlako: "haien egoera ez da gurasoek eraginda, baizik eta migrazio proiektuaren ondorio. Gaitasun handiak dituzten gazteak dira. Batzuk familiak aurreratu ditu harrera herrietan bizitzeko aukera berriak opatzeko bidea irekitzeko. Horregatik ohiko babes sistemaz aparte baliabideak erabili behar dira". Salbuespena 15 urtetik beherako adingabeak dira, horien artatzea ohiko sistemaren bidez bideratzen du Nafarroako Gobernuak, "gaintzekoei eska diezaiekegun autonomia maila ezin zaie horiei eskatu". Gurbindok laburbildu duenez, "gero eta gehiago etorri dira eta horrek behartu gaitu korrika eta presaka baliabide sistema bat eratzea".

Ibilbidearen hasiera

Bakarrik dauden atzerriko adingabeek normalean Foruzaingora jotzen dute euren egoeraren berri emanez eta Nafarroako Gobernuaren babesa eskatuz. Aurreneko harrera Iruñeko Argarain egiten zaie. Handik zentro batera eramaten dituzte eta lehen balorazio elkarrizketa egiten zaie. Han bizpahiru egun egon ondoren, ahalmen handiagoa duten aurreneko harrerako baliabide batzuetara bideratzen dituzte adingabeak.

Gurbindok azaldu digunez, "azken baliabide horiek orain sortzen ari gara. Nafarroan erreferentziarako hiru edo lau polo izateko espazio egokien bila ari gara. Bat segur aski Sakanan izanen da, bestea Tafalla edo Lizarraldeko merinaldean, hirugarrena Tuteran eta azkena Iruñerrian". Zergatiaz galdetuta, zera esan digu: "adingabe horien dako arreta deszentralizatzeko. Ez dugu toki batean atzerriko adingabeen poltsa handi bat sortu nahi; horrela populazioaren

ESKUARTZEAREKIN BERMATU NAHI DA ERABATEKO GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA LORTZEA

kontrako erreakzioa saihestu nahi dugu".

Argitu digunez, lau gune horiek 20 edo 30 adingabe hartuko lituzkete. "Han haiekin lan bizia egiten da hiruzpalau hilabetez, batetik, alfabetizazioan, gaztelania ikasteko. Eta, bestetik, balorazio psikosozial sakona egiten da. Hau da, adingabearen profila, haien itxaropenak eta ahalik eta azkarren eta hobekien integratzeko bidea zein izanen litzatekeen zehazteko". Gurbindok argitu digunez, horretarako, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean ari dira, bai alfabetizaziorako, bai profilari egokitutako Lanbide Heziketako ikasketetara sartzeko. "Gainera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin haien enplegurako prestakuntza programa adingabe horien ezaugarrietara egokitzen ari gara". Iruñerriko Sei elkartearekin aisialdiko akonpainamendurako programa pilotua dute.

Iritsitako hainbat ikaslek ikasketak dituzte. "Horiek baliozkotzea herrialde bakoitzarekin dauden hitzarmenen arabera da. Euren adinerako hemen eskatzen den mailaren azpitik daude. Baina, bai, badira parekatu daitezkeen ikasketak mailak dituztenak. Hezkuntza Departamentuarekin aztertzen ari gara hori guztia". Dena dela, 16 urtetik beherakoek ohiko hezkuntza ibilbidea egiten dute. Eta hementxe mailarik ez dutenendako aniztasunari arreta egiteko bidea hartzen dute. "Kasuaren arabera".

Bitarteko baliabideak

Adingabearen arabera, aurreneko arretako zentroetan bizpahiru hilabete pasa ondoren, bitarteko baliabideetara pasatzen dira, iraupen luzeak dira. "Lauzabost adingabe pisu batera joaten dira. Ondean hezkuntza lantalde bat dute, baina harena ez da hain esku-hartze zuzena izaten, eguneroko bai, baina lantaldearen egiteko periferikoa da. Hezitzaileek hezkuntza, prestakuntza, enplegu edo edozein arloetan akonpainamendua egiten dute". Zer gerta ere, gauez lantaldeko kideren bat erne izaten da.

18 urte betetzen dutenendako autonomia programak daude. "Komunitatean, hau da, aisialdian, elkarrekin, kirol taldeetan edo halakoetan integratzeko akonpainamendu zati bat du eta, bestetik, oinarrizkoena bermatzeko diru-laguntza du: etxebizi-

tza, elikadura, arropa eta esku-dirua izateko. Horretarako, bermatutako errenta dago".

Gurbindok argitu nahi izan du autonomia programara iristeko aurreko programetan zazpi edo zortzi hilabetez egon behar izan dutela denek. "Adingabe batzuk 17 urte eta erdirerkin iristen dira. Autonomia programara pasatzeko denbora tarte hori eskatzen dugu, gutxieneko bermeekin iristen direla ziurtatzeko. Autonomia programan 19 edo 20 urte egin arte egonen dira. 18 urte betetzean ez ditugu bazterrean uzten". Zuzendari-ordeak jakinarazi digunez, ehun pasa adingabe dagoeneko pisuetan daude. Ibilbidea hasi eta autonomia programara iritsi bitartean Nafarroako Gobernuak Barne Ministerioi Atzerritartasun Bulegoarekin administrazio erregulazio prozesua egiten du. "Pasaportearekin etortzen badira aurreneko bi hilabeteetan erregularizatzea lortzen da. Ez badute, luzeagoa da. Jaiotza-agiria lortu beharra dugu, pasaporte lortu ahal izateko. Pasaporte izanda, erregularizazio prozesua hasiko eta lan baimena lortuko litzateke".

Egoitzak

Altsasun egondako adingabeak beste aterpe batean daude, baina Gurbindok esan digunez, hilabete honetan behin betiko toki batera eraman nahi dituzte. Gurbindok aitortu digunez, "hori guztia lasterkan egiten ari gara. Apirilean eta maiatzean 79 etorri ziren. Kopuru horiekin sistemari ez dio betarik ematen iristen diren heinean baliabideak sortzeko. Baliabide nagusiak direnak birkokatzen ahalegintzen ari gara, aterpeetara jo behar ez izateko, nahi dugun moduan lan egiteko tokiak ez direlako". Behin behi-

nekotasun egoera horregatik, adingabeak Altsasuko aterpean bi txandatan eta Sakanako beste estatu batean behin egon ziren.

Adingabe horien arretaren ardurak, kontrola eta ikuskapena Nafarroako Gobernuarena da, baina programaren kudeaketa irabazi asmorik gabeko erakundeek egiten dute. Haurtzaroa babesteko programen ardurak ere erakundeak ari dira adingabeekin.

Hurrengo pausoak

Gurbindok jakinarazi digunez, ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako hiru mankomunitateetako ordezkariekin heldu den astean elkartuko dira. "Ikuspegi teknikotik arreta ereduaz zein den azaldu, nola gauden, zein baliabide ditugun, zein behar izanen ditugun eta Lehen Arretaren arloa zein inplikazio izanen dituen azaltzeko". Paraleloki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak Nafarroan integratzeko mahai sektoriala deitu dute hilaren akaberarako. "Gutaz aparte, Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuak, Kirol eta Gazteria Zuzendaritza, Atzerritartasun Bulegoa, Fiskaltza eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa presente egotea nahi genuke. Honetan busti eta koordinatu behar duten guztiak".

Nafarroako Gobernutik Barne Ministerioari ere eskaera egina diote: erkidegoen artean bakarrik dauden adingabe atzerritarren banaketa orekatua egitea. Horretarako, errenta, lurraldea edota populazioa kontuan hartzea eskatu du. Horrek erkidego bakoitzean halako zenbat adingabe egon beharko lukeen zehaztuko luke. "Ezin dugu ziurgabetasun honekin segitu. Orain 170 ditugu eta ez dakigu zenbat izanen ditugun abenduan. Adingabeek har-



Altsasuko aterpean izan ziren adingabeetako lau.

tzen dute migratzeko erabakia eta etorrera ezin da aurreikusi. Etorri ahala harrera egitea ezin da irizpidea izan. Euskal Autonomia Erkidegoan mila daude eta beste erkidego batzuek ez dute bat bera ere, edo oso gutxi. Ministerioak banaketa zentralizatu behar du. Hori lortu nahian ari gara". Bakarrik dauden 18.000 adingabe atzerritar artatu zituzten Estatuan 2018an. Egindako banaketaren arabera Nafarroak 170 eta 208 adingabe bitartean hartu beharko litzuzke.

Legezko betebeharrak

"Giza eskubideen testuinguruan ari gara lanean. Nazio Batuen Erakundearen Haurren Eskubideen Aldarrikapenak argi eta garbi jasotzen du. Haurrak babesten dituen hiru Lege Organiko daude. Batzuek eta besteek argi eta garbi uzten dute, jatorria

edozein izanda ere, adingabe guztiez aurreneko minututik arduratu beharra dagoela. Horrek komunitatean haserrealdiak sortzen ditu, desberdinari beldurra. Hedabideetan langarraren moduan zabaltzen den informazioa

barneratzen goaz eta, batzuetan, adingabe horiek ulertzeko erantzun desegokiekin agertzen da. Premia jakinak dituzte eta laguntza behar dute. Bizitzeko aukeren bila heldu dira, gure gurasoek edo aitona-amonek migratu behar izan zutenean bezala". Zuzendari-ordearen azalpena da.

Horren guztiaren jakitun izanik, komunitatean "distortsiorik" ez sortzeko eta "harrera ona izaten saiatzeko" lanean ari dira. "Ez dauden tokian ez daitezela mamuak ikusi. Zurrumurruak kalte egiten dute. Egunerokotasunak integratu ditzakeela erakustea nahi dugu. Edozein adingabekin egon daitezkeen arazoak egon daitezke. Baina ez du zergatik arazo gehiagorik izan beharrik". Gurbindok jakinarazi duenez, "eskatzen zaigun esparru guztietan elkarlanerako eta jarraipena egiteko prest gaude".

Adingabeen profila

% 97 mutilak dira eta % 3 neskak. 16,8 urteko batez besteko adina dute. % 89 15 urte baino gehiago dituzte eta 16-17 urte artean dute % 73k. Nafarroara iritsi diren % 95 marokoarra da. Beste % 5 Gambia, Ghana, Ginea eta Aljeriakoak.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Bateti bestia
10:20 Eguneako albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Goberna-bidea

Ez dakit zer gertatuko den larunbatean, ekainaren 15ean, herri askotako udal gobernuetan. Idatzi hau argitaratu orduko jakinen dugu zein motatako Naparru izanen dugun datozen lau urteetan. Antza, lehenbizi udalak eratu nahi dituzte eta ondoren jarraituko dituzte negoziazioak. Zein izango da gobernabidea? Zein ate irekiko ditu Nafarroako Gobernu berriaren giltzaren jabeak? Agian, berriz aurreko iluntasuna eroriko zaigu gainera, gizartearen hainbat arloen kalterako.

Azken egunetan darabilgun hitz dantza egundokoa da, glosario bat egiteko modukoa. Has gaitezen pilatzen. Inbestidura, marra gorria, akordioak, aurre-akordioak, itunak, aliantzak, babesak, aldeko eta kontrako botoak, abstentzioa bai-ez, negoziazioa bai-ez, hautagaitzak, aulkiak, taldeen arteko bilerak, boto-emaile kopurua, baztertzak, "Ferraz", Madrilgo erabakiak, gehiengo osoak, hautetsiak, lehen indarrak, gobernu osaketak, eskuinak, ezkerak, gobernu konstituzionalista, indar subiranistak, indar aurrerakoak, gehiengo plurala eta abar amaiezina azken hilabete eskas honetan esandakoa laburbiltzeko. Hitz horiekin guztiekin, segur aski, bertsolariak "seguidilla" egiteko aukera aparta izan dezakete.

ZEIN IZANGO DA GOVERNABIDEA? ZEIN ATE IREKIKO DITU NAFARROAKO GOBERNU BERRIAREN GILTZAREN JABEAK?

parezido.

Baina zertxobait gehiago arakatzen segitzen bada, erantzun oso desberdinak jaso ditzakegu. Esaterako: Politika, biolentziaren erabilerearen bidez, pertsonen, herriek eta estatuek boterearen ardatz hierarkikoarekiko duten posizio asimetrikoa zehazten duten erlazioak mantentzea edo aldatzea xedetzat duen jarduera da. Horregatik, politikaz ari bagara, laguna-etsaia dialektikarekin egiten dugu topo ezinbestean.

Horren haritik antzeko zerbait esan zuen Jean-Michel Apathiek: "Boterearen etengabeko konkista da politika". Hori garbi ikusi dugu herritarrek pittekan-pittekan hautestontzietan sartutako bozken lehian dabilzan honetan, nork konkistatuko zain.

Gauzak horrela, lehenik politikaz gutxi banekien ere, orain tutik ez dakidala uste dut eta ulertu bapez (bizkaitarren moduan)! Edo, agian, aritmetikarekin eta bizpahiru formulekin nahikoa izango nuke politikaren mapak edo "gazta pusken Nafarroa" ulertzeko?

GUTUNA

Guk sinisten dizugu

GURUTZE ARREGI MUJIK
ALTSASUKO MUGIMENDU
FEMINISTAREN IZENEAN

Onartezinak diren komentarioez bete dira sare sozialak azken asteetan. Berdin zaizkigun zehaztasun morbosoa irakurri behar izan ditugu, berritoki ere emakumeak zalantzan jartzeko, seinaltzeko, kriminalizatzeko eta gure askatasuna mugatzeko

helburuarekin idazten diren iruzkinak.

Horregatik *Bilgune Altsasu* Facebookeko orrialdean jarritako babes mezua ezabatzeko erabakia hartu behar izan dugu. Ez da ohikoa gurean, adierazpen askatasunaren alde baikara; baina bertako erantzunetan emakumea erasotzen zen behin eta berriz, eta hori onartezina da.

Altsasuko Mugimendu feministatik argi eta garbi esaten dugu, berriz, eraso

baten aurretik edo ostean gertatzen dena ez legokeela iritzi publikoan egon beharko. Ez dugu onartzen ganora gabeko zurrumurrurik eta epai edo iritzi moralik eta erasotua izan den emakumearekiko gure babes osoa adierazten diogu beste behin ere. Izan ere, marmar guzti hauek biolentzia testuinguru bat sortzen dute, non muturreko egoerak sustatzen diren. Gogoan dugu IVECOko langilea.

Guk sinisten dizugu, guk sinisten dizuegu.

OBJEKTIBOTIK

Urdina da hori berria

Normalean hondakinen edukiontzia itxita egoten dira, eta herritar guztion imajinarioetan barruan dagoen edukiontzian egon beharko litzatekeenarekin bat egiten du; kolore urdinean papera eta kartoia, berdean beira, berde ilunean errefusa, marroian organikoa eta horian plastikozko eta metalezko ontziak.

Baina barrura begiratuta, hara gure sorpresa! Edukiontzi urdinean metalezko eta plastikozko latak aurkitu baititugu. Telesail berri bat egin genezake: *Urdina da hori berria*.



GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00 baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ergoendarrak botoa ematen maiatzaren 26an.

Hauteskundeetan aukeratutako udalak bihar osatuko dira

Alkatetza guztiak erabakita, biharkoa tramitezko bilkurak izanen dira

SAKANA

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan berriro ziren Sakanako 13 udalak eratzeko eguna dute bihar. Haietako hamarrek EH Bilduren alkatea izanen dute: Arakil, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Arantz, Bakaiku, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordia. Hautagaitza independenteetako alkateak izanen dituzte Arruazun eta Ergoienan legegintzaldi berriari. Eta Altsasun Geroa Baikoa.

Zortzi alkate berri izanen dira bihartik aurrera Sakana, gaintzeko bostek ardurari eusten baitiote. 13 alkatetatik 3 besterik ez dira emakumezkoak izanen. Eta ibarrean bihar kargua hartuko duten 109 hautetsietatik 66 gizonetzkoak izanen dira eta 43 emakumezkoak. Bestetik, Irañetan eta Iturmendin udala osatzeko udazkeneko deialdira itxaron beharko dute,.

Udal osaketan ordutegia

Bihar goiztiarren ibiliko direnak olaztiarrak dira. Arbazuarrak azkenak.

- **Arakil** 11:00etan.
- **Irurtzun** 12:00etan.
- **Uharte Arakil** 11:00etan.
- **Arruazu** 16:00etan.
- **Lakuntza** 12:00etan.
- **Arbizu** 12:00etan.
- **Ergoiena** 13:30ean.
- **Etxarri Arantz** 11:30ean.
- **Bakaiku** 11:00etan.
- **Urdiain** 11:30ean.
- **Altsasu** 12:00etan.
- **Olatzagutia** 10:00etan.
- **Ziordia** 13:00.

Altsasun bigarren Euskaraldiarekin zer egin?

Udakenean izan zen aurreneko Euskaraldiak bi hitz utzi zizkigun: ahobizi eta belarriprest. Euskararen erabilera handitzeko ariketa 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte egin zen. 11 egun haietan hainbat euskaldun aktibatu ziren, euren hizkuntza ohiturak aldatu zitzaizkela edo aldatu nahi lituzkeela sinistuta. Bigarren Euskaraldia

heldu den urteko udazkena akaberan izanen da. Lehen edizioan bezala, bigarren Euskaraldiak ere aurrelana eskatuko du, belarriprestak eta ahobiziak aktibatu behar direlako. Horregatik, aurreko Euskaraldia taldean aritutakoei eta euskaltzale altsasuarrei bilera irekian parte hartzeko deialdia egin zaie, bigarren Euskaraldiko lehen pausok ematea nahi luketen jakiteko. Hitzordua Asteartean jarri dute, 19:00etan, Gure Etxea eraikinean bilera irekia egingen da.

Ikasturte berriari 47 unibertsitate ikasle berri

Selektibitateari aurkeztu diren ikasle sakandar guztiek gainditu dute proba

SAKANA

Joan den astean, hiru egunez, azterketak egin eta egin aritu ziren 47 ikasle sakandar. Guztiek ere Batzilergoa despedituta euren ikasketak unibertsitatean segitzeko asmoa zuten. Eta lortu dute, guztiek gainditu baitute unibertsitatean sartzeko proba. Haietatik 43k Altsasu institutuan ikasi dute (40 D ereduari eta 2 A ereduari). Ikastetxe horretako lau ikasle ohi ere aurkeztu ziren eta gainditu egin dute. Baita Iruñeko Biurdana institutuan D ereduari ikasten duen Arakil aldeko ikasleak ere. Orain nahi dituzten ikasketetan matrikulatzeko beharrezko nota ote duten begiratu eta izen emateko prozesua dute aurretik.

Nafarroan selektibitatea egiteko 3.066 ikasle eman zuten izena. Haietatik 107k ez dute unibertsitatearako sarbide proba gainditu eta beste 17k ez aurkezte erabaki zuten.



Joan den urteko Aralar Elkartearen eguna. ARTXIBOA

Aralar Elkarteak festarako deia egin du iganderako

Elkartea bera sendotu eta mendiaren bi aldeetako elkartekide diren herrietako biztanleak topatzeko

SAKANA

Jendea pozik, eta giro ederrean. Hala joan zen Aralar elkartearen eguna 2018an. 10 urteko etenaren ondoren, atzera ere, Aralar Guardetxea zenaren ondoan, elkartu ziren araitzarrak eta sakandarrak. Etxe ere hala egingen dute, ohi bezala, San Juan aurreko igandean. Aralar Elkarteak kideek eguerdian egingen diete ongi etorria ospakizunera elkartzeko guztiei. 13:00etan aizkolariak lanean ikusteko aukera izanen da. 14:30erako iragarria dago herri-bazkaria. Eta mahaitik jaso ondoren Eluston-

do anaiak dantzarako doinuak jarriko dituzte.

Elkarteko kideak

Aralar elkartearen izen bereko mendiaren bi aldeetako ibarretako herrietan osatzen dute. Araitz aldeko Arribe, Atallu, Azkarate, Betelu, Errazkin, Gaintza, Intza eta Uztegi. Eta Sakanako Hiri-berri Arakil, Ihabar, Irañeta, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Lizarragabengoa eta Etxarri Arantz. Elkartearen presidentea Lakuntzako alkatea da beti eta, egoitza, Lakuntzako udaletxea.





Arbizuarra gainontzeko auzipetuekin batera. UTZITAKOIA

Auzipetutako Balda babesteko plataforma sortu dute

11/13 sumarioan auzipetuta dago Fran Balda eta irailean epaituko dute. Gaur herri batzarra 18:30ean

ARBIZU

Duela bi aste egindako bilera baten ondoren sortu zen Baldaren Babeserako Plataforma, Fran Balda Arañari babesa eta elkartasuna adieraztea helburu duena. Izan ere, Balda, beste 46 euskal herritarrekin batera, 11/13 sumarioan auzipetuta dago. Guztiak ere Jaiki Hadi (Presoen eta erbesteratuen osasunaren alde), Herrira (presoen eskubideen alde), presoen abokatuak (lege-defentsa egin), senideak edota Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren bitartekari taldekoak dira.

Plataformako kideek gaurko batzarrean datozen ekimenen berri emanen diete arbizuarrei. Aldi berean, ideiak jaso nahi dituzte eta aurreikusitakoak egiteko lantaldeak sortu nahi lituzkete. Batzarra despedituta, euren asmoen berri prentsaren aurrean emanen dituzte, 19:30ean.

Gastuak

Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituko dituzte 47ak irailaren 16tik aurrera. Epaiak hiru hilabete inguru iraunen duela aurreikusi dute. Baldak 20,5 urteko espetxe zigor eskaerari aurre egingen dio, Herrirako kide izateagatik. 47 auzipetuek jakinarazi dutenez epaiak gatuak 337.462 eurokoak izanen dira, 7.180 euro auzipetu bakoitzeko. Kopuru horrek hartzen du abokatuen eta prokuradoreen lana (236.440 euro) auzipetuen, abokatuen eta lekukoen garraioa (28.950 euro) eta auzipetuen eta lekukoen Madrilgo egonaldia (72.072 euro).

Auzipetuek gaztigatu dutenez, "langileak gara. Gutako askok zailtasun handiak izanen ditugu epaiketa honek suposatuko digun galera ekonomikoari aurre egiteko". Gaineratu dutenez, "Madrilerako joateko eszedentziak, lizentziak edota opor egunak eskatu beharko ditugu eta langabezia daudenek arazo handiak edukiko dituzte, hemendik eta epaiketa amaitu arte, soldatapeko lan bat aurkitzeko".

Horregatik, epaiak suposatzen duen gastuei aurre egiteko diru bilketa kanpaina hasi dute. Diru ekarpenak Laboral Kutxaren ES82 3035 0057 9205 7005 9033 kontu korrantean sartu daitezke.

Azkenik, 47 auzipetuek jakinarazi dute epaiak etari eta euren kanpainari buruzko informazio guztia www.11-13makroepaiketa.eus web atarian dagoela.

Pentsiodunak Aita Barandiaran egoitzara aldarrikatzera

Asteleheneroko 12:00etako kontzentrazioa adinduen egoitzaren parean egingen dute, zerbitzu ona eskatzeko

ALTSASU

Pentsio duin eta publikoen aldeko mugimenduak astelehenero, 12:00etan, kontzentrazioa egiten du Altsasun. Euren aldarrikapenetako batzuk dira, besteak beste: pentsioak urtetik urtera Kontsumo Prezioen Indizea errearekin automatikoki berdintzea; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa; gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea baita lan erreformak bertan behera uztea. Horrekin batera adineko pertsonendako zerbitzu egokiak eskatzen dituzte.

Hori dela eta, astelehenean Aita Barandiaran egoitzaren parean kontzentratuko dira. Han dauden pertsonak gero eta mendekotasun handiagoa dute eta horrek langileen lan karga handitzen du. Sakanako Pentsiodunen Koordinadorak kalitatezko zerbitzua eta langileen lan baldintzak al-



Astelehenero, 12:00etan, biltzen dira.

darrikatuko ditu. Eta udalak eta Nafarroako Gobernuak sinatuko duten kontzertu berriaren hurrengo eskaerak jaso daitezela exijitu dute: bi zaintzaile gehiago, garbitokirako langile bat eta osasun-laguntzaile tekniko bat kontratatzea.

Altsasuarrak Katalunian: Argentona kantuz

Kukuerreka kantu poteo taldeak eta Zangitu fanfarreak Katalunian emanen dute asteburua

ALTSASU

Altsasuko auziko bigarren epaia salatzeke jendetzak hartu zuen herria. Hainbat altsasuarrak euren etxeak zabaldu zituzten. Eta asteburu pasa etorritako jendearekin ere harremanak sortu ziren. Egun horretan erabaki zuten, antza, argentondarrek eta altsasuarrak Katalunian zerbait egitea. Eta asteburuan izanen da: Argentona eta Altsasu askatasunaren alde elkarrekin kanta. Kukuerreka kantu poteo taldeak eta Zangitu fanfarreak parte hartuko dute.

Bihar, 17:30ean, kalejira egingen dute eta 18:15ean alkateak harreman egiten die. 18:30ean Mozal Legeari eta haren ondorioei buruzko hitzaldia izanen da. Gainera, Altsasu Gurasoak taldeko kideek bideo-konferentzia bidez parte hartuko dute. 21:00etan herri-afaria izanen da eta ondo-



'Ez da justizia' manifestazioa. ARTXIBOA

ren Fermin Valencia eta Argentonako deabruak parte hartuko dute. Domekan, berriz, 11:30ean, Askatasunaren aldeko musika emanaldia eskainiko dute. 13:00etan bazkaldu eta 15:45ean argentondarren agurra jasoko dute altsasuarrak.



Udako Ikastaroen kartela. UEU

UEUko Udako Ikastaroen matrikula zabalik dago

Ikastaroak egiten dituztenek Sakanako Mankomunitatearen laguntza jaso dezakete

SAKANA

Udako Euskal Unibertsitateak 47. urtez Udako Ikastaroak antolatu ditu. Udako Euskal Unibertsitatearen eskaintza 30 ikastarok eta 6 jardunaldik osatzen dute, Baionan, Bilbon, Eibarren, Donostian, Arizkunen, Tolosan eta Iruñean egingen direnak. Udako Ikastaroen eskaintzaren berri www.ueu.eus web orrian jaso daiteke. Ikastaro bakoitza hasi aurreko astera arte izanen da izena emateko epea zabalik.

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetako batean parte hartzen dutenek Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Matrikulari dagokiona, beti ere, ez egoitza ezta kilometraje gasturik ez baitu pagatuko Euskara Zerbitzuak. Sakanako Mankomunitateak guztira 500 euroko diru-poltsa du izena eman dutenen artean banatzeko. Horretarako, eskabideak azaroaren 29a baino lehen egin beharko dira. Udako Euskal Unibertsitateko bezala, euskarazko ikastaro teknikoak eta hizkuntza minorizatuak buruz egin dituzten sakanadarrendako ere baliagarriak dira aipatutako diru-laguntza horiek.



"Ohitu gaitezen organikoa banatzera ere"

ITZIAR ZUDAIRE SALEGI HONDAKIN ZERBITZUKO HEZITZAILEA

Altsasun etxeetan sortutako materia organikoa tratatzeko hiru bide daude: auto- eta auzo-konposta edo bosgarren edukiontzia

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Otadiko auzo-konpostagailuak larunbat eguerdian hartu zuen III. Altsasuko konpost festa. Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko hezitzaile Itziar Zudaire Salegik esan zigunez, "jendeak egiten ari den lana eta auzo-konpostagailua nola dioan ikus dezan. Hemengoa eta Auzo-bide kalekoa oso ongi doaz. Gaurko eguna da jendeak ikusteko bere hondakin organikoekin baratzerako edo bere loreendako zer lor dezakeen". Altsasun aipatutako bi auzo-konpostagailuak daude. Otadikoan 27 etxebizitzetako materia organikoa dago. Idertzegainen, berriz, 13 etxebizitzetako jasotzen ari dira. Bera, bietan erabiltzaile gehiago hartzeko aukera dago, "konposta bertan egitea interesatzen baitzaigu".

Organikoa birziklitzeko prozesuan aurrerapausoa eman duenaren lekukotza da honakoa: "materia organikoa banatzen dudanetik, berdera ez dut deus botatzen!"

Altsasun auzo-konpostagailua da materia organikoa tratatzeko modua, beste bat auto-konposta da. Lorategia edo baratza duten etxebizitzek aukera dute konpostagailu bat hartzeko. Arbizuko hondakindegira joan beharko



Konposta nola egiten den erakutsi eta hura banatu zuten larunbatean.

lukete. Konpostagailu bat emanen genieke. Konposta nola egin, konpostagailua non jarri eta beste azalduko genieke. Arazorik balute gu ikustera edo laguntzera joan gaitezke. Lur zatitxoa badute, euren materia organikoa kudeatzeko, ederki. Gaur egun 143 etxebizitzek dute auto-konpostagailua.

Altsasun materia organikoa tratatzeko hirugarren modua edukiontzia marroia da.

Bosgarren edukiontzia gainerako edukiontzien funtzionamendua bera du. Zu zure poltsatxo-

rekin joaten zara, zabaldu, bertan bota eta gu biltzera etortzen gara. Materia organikoaren banaketa egiten da. Hori baita nahi duguna, materia organikoa errefusatik ateratzea eta hondakindegia batean ez bukatzea, baizik eta bigarren bizitza bat edukitzea. Egia da konposta tokian-tokiko tratamendu bat dela, herrian sortzen duzu eta herrian tratatzen duzu eta, azkenean, konposta herrian bertan bihurtzen da. Bosgarren edukiontzia kasuan kamioiarekin etortzen gara, edukiontzietan dagoena jaso egiten

dugu eta Kaparrosoko tratamendu plantara eramaten dugu.

Altsasun 2018ko ilbeltzaren 18an mustu ziren bosgarren edukiontzia.

Pixkeka-pixkekan jendea izena ematera animatzen ari da. Baina oraindik materia organikoa banatzen animatzera jende gehiago behar dugu. Gaur egun 685 etxebizitza daude bosgarren edukiontzia erabiltzen.

Altsasun materia organikoa bereizten duten 2.463 etxebizitzetara iritsi nahi duzue, ezta?

Kopuru horretara iritsi beharko ginatke, Altsasuko 3.790 etxebizitzetako % 65era. Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak sinatutako akordioaren arabera 2.463 etxebizitzek materia organikoa banatzera iritsi beharko genuke. Gaur egun aukeratu dauden hiru sistemak erabiltzen Altsasuko etxebizitzetako % 22,9 ari da materia organikoa banatzen.

Oraindik ere altsasuarrak animatu beharko dituzue.

Bai. Ez da ezer kosta. Ohitura hartzea da. Hondakinak banatu behar ditugu. Legeak hori dio. Jendea animatu dadila, azkenean, ez dela deus.

Materia organikoa etxe batean sortzen den hondakin kopuruaren ehuneko handi bat da, ezta?

Edukiontzia berdera botatzen zenaren % 40, gutxi gorabehera, materia organikoa zen. Hitz egiten baldin baduzu materia organikoa banatzen duen jendearekin esaten dizute: "hasi naiz materia organikoa banatzen eta gaur

"MATERIA ORGANIKOA BANATZEN DUDANETIK, BERDERA EZ DUT DEUS BOTATZEN!"

egun edukiontzia berdera botatzen dudana ez da deus, oso gutxi ataritzen dut". Hori nabaria da.

Legea aipatu duzu. Zer dio?

Europako eta Nafarroako legeek mugarririk jarri dituzte eta materia organikoa banatzea izan beharko litzateke joera, gutxi gorabehera sortutako organikoaren % 50 jasotzea.

Altsasun ez da iritsi. Bakarren batek bere aletxoa jarri nahi baldin badu?

Sakanako Mankomunitatera edo 900 730 450 doako telefonora hots egin dezakete. Baina gomendatzen dugu aurreneko aldiaren Arbizuko hondakindegitik pasatzea. Bertan auto- eta auzo konpostari edo bosgarren edukiontzia buruzko azalpen eta material guztiak emanen genizkieke. 07:30etik 15:00etara gaude. Gainera, bosgarren edukiontzirako poltsa konpostagarriak udaletxean jaso ditzakete doan, titularraren izen-abizena ematea besterik ez da egin behar. Jendea animatu dadila. Ohitu ginen papera banatzera, ontziak banatzera, beira banatzera... Ohitu gaitezen ere materia organikoa banatzera.

Konpost planta

5. edukiontzian eta atez ate jasotzen den materia organikoa Mank-ek Kaparrosora eramaten du tratatzera. Ibarreko erakundeak Arbizuko hondakindegian konpost planta egiteko lanak hasi nahi ditu aurrean, organikoa Sakanan tratatzeko.

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

maríaeugenia
Arrainak

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

BILTOKI
TABERNA • JETETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
10€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea
- Minaren tratamendua
- Antzietatea, depresioa, beldurak
- Masaje psikosomático

olgamartinez@yahoo.es
639 408 118

Sorginak
1987

LAKUNTZA

948 576 357



Institutukoak Ezkabako sarreran. NAFAR GOBERNUA

Institutukoak "askatasunaren botilak" ekimenean

Ezkabako espetxea zena eta Olabe lotzen dituen GR-225 bidea egin zuten 38ko ihesaldia gogoratzeko

SAKANA

1938ko maiatzaren 22an Ezkabako kartzelatik ihes egindako presoekin pausoak segitu zituzten Nafarroako zazpi ikastetxeetako 400 ikasle aste hasieran. Iruñea, Zizur eta Altsasu institutueta 260 ikaslek GR-225 ibilbidearen lehen zatia egin zuten astelehenean, Ezkabatik Olabeko hobiraino. Ibiltzen hasi aurretik kartzela hartatik ihes egindako bi presoren senideek euren lekukotza eman zieten ikasleei. Ondoren ikasleek askatasun botiletan kartzela hartan preso egondakoek idatzitako lekukotzak, argazkiak eta paretetan idatzitako erreproduzioak askatasun botiletan sartu zituzten.

1936ko estatu kolpearen ondorengo errepresioa urte luzez ikertzen aritutako Koldo Plak Ezkaba gaineko gotorlekuaren eta presoekin ihesaldiaren testu

ingurua azaldu zien. Behin bigarrena, ikasleek Orrio herrian bost urterekin ihesaldiaren lekuko izan zen emakumezko baten azalpenak entzun zituzten. Etapa Olaben bukatu zuten. Hango hobian 16 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu zituzten 2016an. Eta han bertan omenaldia egin zuten. Ana Ollo Herritar eta Era-kundeekiko Harremanetarako kontseilariak ikasleei eskerrak eman zizkien "memoria etorkizuneko gaia posible egiteagatik. Zuen lanari esker gertakari horiek ez ahaztea lortuko dugu baina, batez ere, inoiz ez daitezela errepikatu".

Nafarroako Memoria Institutuaren Memoriadun Eskolak programaren barruan antolatutako "askatasunaren botilak" ekimenaren bigarren edizioa da. Asteartean beste lau ikastetxetako 140 ikaslek Sorogain eta Urepel artean ibili ziren.

Zurrumurruek txikituta

Larunbatean izan zen, Munduko Arrozak ekimenean parte hartu zutenek zurrumurruekin hautsi zuten. Paperean idatzian idatziak zeudenak txiki-txiki egin zituzten. Trukean klabelin bana eta arrozak dastatzeko beharrezko platerak eta sardexka jaso zituzten. Arroza Brasil, Maroko, Peru, Senegal, Irurtzun eta Help-Na erara dastatzeko aukera izan zen.



JUAN PEDRO HIGUERO



Andramaritarak

Andra Mari ikastolaren urteurren ospakizunak jendetza bildu zuen Etxarri Aranatzan. Ospakizuna kultur etxean egindako ekitaldiarekin abiatu zen. Sortzaileek, langileek, bidelagunek, familieek eta ikasleek aitortza jaso zuten. Martiarenak gogoratu zuen Sakanako herri

askotan erein zutela gurasoek ikastolaren hazia. "Izugarrria izan zen eta izaten ari da familien eta herritarren ahalegina". Ondoren 800 bat pertsona elkartu ziren bazkaltzera. Beietz eta Tximeleta taldeek doinua jarri zioten arratsaldeari.

BAKAIKUKO FESTAK

Bakarreko Etxea elkarteak festetan alokatuko da. Enkantearen hasierako prezioa 2.000 €-koa izango da lokal handiarentzat, eta 1.000 €-koa lokal txikiarentzat. Eskaintzak uztailaren 4ko 21:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira.

Informazio+: www.bakaiku.info/elkartea-festak

BAKAIKUKO ELKARTEA

Larraza NUPeko katedradun izendatu dute

Nafarroako Unibertsitateko Publikoko (NUP) irakasleri lanpostuak betetzeko lehiaketarako deia egin zen. Eta behin hura despedituta lehiaketaz arduratzen den batzordeak 2019ko maiatzaren 28an proposatu zuen Martin Larraza Kintana Enpresen Kudeaketa Saileko "Enpresen Antolaketa" jakintza-arloko unibertsitateko katedradun izendatzea.

Altsasuko geltokitarrak kontu kontari

Altsasuko Geltoki auzoan bizi izandakoak larunbatean elkartu ziren. Batzuk kanpoan bizi arren buruan ongi iltzatuak dituzte Geltoki auzoan bizi izandakoak eta horiek biziberritu zituzten adiskidantza bazkarian. Giro onean erreparatu zituzten garai bateko auzoko kontuak eta heldu den urtean biltzeko asmoa berretsi zuten.

Konponketa txokoa, Kafe Konpondu, beste hiru herrietan

Etxean ditugun objektuak konpondu, berrerabili eta bigarren bizi emateko. Kafe Konponduren hurrengo hitzorduak honakoak dira: Etxarri Aranazko plazan asteartean, Irañetako frontoian asteazkenean eta Bakaikuko plazan ostegunean. Hiru herrietan 18:00etatik 20:00etara egonen dira. Dohainik da eta aurretik ez da izena eman behar.

Arakilen haur eta helduendako udal eskaintza

Udako aisialdi campusa agorrilerako eta hilaren akaberarako kultur irteera iragarri ditu udalak

ARAKIL

Arakilgo herri batetik bestera mugituko den udako aisialdi campusa antolatu du udalak. Garilaren 29tik agorrilaren 14 bitarteko astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 13:00etara egingen dira haurrak begira-leekin. Campusa bost eta hama-bi urteko haurrei zuzenduta dago eta euskaraz izanen da. Izena emateko epea garilaren 23an despedituko da. Arakilen erroldatutakoek 30 euro pagatu beharko dituzte eta udalerrian erroldatuta ez daudenek, berriz, 40 euro pagatu beharko dituzte. Bestalde, hilaren 29an Oñati eta Arantzazu ezagutzeko kultur-irteera programatu du Arakilgo Udalak. Autobusa 08:30ean abiatuko da. Behin Oñatin, 10:30ean, Txokolateixia, txokolatearen interpretazio gunea bisitatuko dute. Handik atera eta 11:30ean

Oñatiko unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatua izanen dute. Ondoren zein bere albiziora herria ezagutzeko aukera izanen du, baina 14:30ean bazkaltzera elkartuko dira. Handik atera ondoren, 17:00etan, Arantzazun bisita gidatua izanen dute. Handik aterata etxerako buelta egingen dute.

Izena eman nahi duenak hilaren 25era arteko epea eman du Arakilgo Udalak. Kasu horretan ere bi prezio zehaztu ditu. Ibairean erroldatuta daudenek 25 euro pagatu beharko dituzte, 18 euro haurrak badira. Arakilen erroldatuta ez dauden pertsona helduek, berriz, 30 euro ordaindu beharko dituzte, 20 euro haurrak badira. Bi eskaintzen gaineko informazio gehiago nahi duenak 948 500 101 edo 634 584 223 telefonoetara hots egin dezake.



ETXARRI ARANAZKO UDALA

Zapi hezeak komunera, ez!

Etxarri Aranazko Udalak herritarrei eskatu die eskuzapi hezeak komuneko zulotik behera ez botatzeko. Jarduneko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek gaztigatu duenez, "zapi bustien pilaketek izugarriko trabak eta matxurak sortzen dituzte herriko ur-sarean". Maizek gaineratu duenez, "eskuzapi heze horiek hainbat zuntz sintetiko eta substantzia dituzte, eta ez dira biodegradagarriak, nahiz eta

publizitatean hori jarri. Gainera, kalte handia eragiten diote ingurumenari".

Komunetako zulotik botatuko zapi bustiek European urtero 500 milioi euro baino gehiagoko gastua eragiten dute, hoditeria sareetan pilatu eta hondatu egiten dituztelako. Maizek argitu duenez, "Etxarriko ur-sarean ere arazo handiak sortzen ari dira". Horregatik, komuneko zulotik zapi bustirik ez botatzeko deia egin du.

Zertara bideratuko ditu udalak 40.000 euro?

Altsasuarrek astelehenetik garilaren 18ra arte udalari inbertsio proposamenak egiteko aukera dute. Diru kopuru horrekin bideragarriak ote diren aztertu ondoren, proposamenetako baten alde egiteko bozketa garilaren 17tik 31ra izanen da

ALTSASU

Altsasuko Udalak bigarren urtez parte-hartze aurrekontuak jarri ditu martxan. Ekimen horren bidez altsasuarrek udalaren eskumenekoak diren arloetan 40.000 euro zertara bideratu erabaki beharko dute. Udalak, lehenengo eta behin, proposamenak jasotzeko epea zabaldu du gaur. Udaletxean edo www.altsasu.eus web orrian dauden inprimakietan aurkeztu behar da proposamena (titulua eta, gehienez, 500 hitzeko memoria edo azalpena, irudiz lagunduta nahi bada).

Behin epea despedituta, udaleko Parte-hartze Batzordeak 40.000 euroekin egin daitezkeen inbertsioak zein diren eta deialdiko oinarriekin bat egiten duten aztertuko du. Diru kopuru horrekin egin daitezken proposamenen artean aukeratu beharko dute altsasuarrek. Herri bozketa hori garilaren 17tik 31ra izanen da, biak barne. Boto kutzak udal txean eta Iortia kultur guneko ezkaratzean izanen dira. Web bidez boto emateko aukera ere izanen da. Boto gehien lortzen dituen proposamena izanen da udalak aurrera eramane duena. Berdinketa kasuan aipatu batzordeak erabakiko du.

Botoa 16 urtetik gorako edozein altsasuarrek emateko aukera



Kaleak berrituta ere, autobus geltokia oraindik adinduen egoitza ondoan segiko du.

izanen dute. Hiru proposamen aukeratu ditzakete eta gogokoen dutenari 3 puntu eman eta 2 eta 1 puntu hain gogoko ez dituztenei. Aukeratutako proposamena urtea despeditu aurretik gauzatu du udalak. Bigarren urtea da Altsasuko Udalak diru poltsa baten erabilera herritarrek erabakitzea uzten duena. Pasa den urtean altsasuarrek 20.000 eurokoa izan zen herritarrek aukeratutako inbertsiorako udalak bideratutako diru poltsa. Herritarrek finkoa ez den karpa bat erostearen alde egin zuten.

Lanak

Ermita eta Isidoro Melero kaleetan zebrabideak eta bestelakoak margotu ondoren, atzo despeditu zituen lanak Construcciones Mariezkurrena enpresak. Dagoeneko ibilgailuak handik ibil daitezke. Hala ere, autobus geltokia oraindik Aita Barandiaran egoitzaren ondoan segituko duela jakinarazi digu alkateak. Aldi berean, aurreratu du Amaia eta Bakea kaleetako sareak eta Zumalakarregi plazako zorua berritzeko lanak hilaren bigarren erdialdean hasiko direla.



Andra Mari Ikastolaren
50 urteurren ospakizunean
gurekin egon zareten laqun
eta laquntzaile guztioi:

Eskerrik asko!



Irurtzongo Trinitate festetan kirol eskaintza zabala

Asteburuan kirolak protagonismo handia izanen du.

Egitaraua

Garagartzaroak 14, ostirala

• **20:00** Ametza, Amati eta Irurtzun abesbatzen kontzertua, San Martin elizan.

Garagartzaroak 15, larunbata

• **09:30** VI. Ergako Trinitatera erlojupeko igoera, Aska plazatik. Guan taldeak antolatuta.

• **12:30-14:00** Kirola euskaraz, Foru plazan. Aizpea euskara taldeak antolatuta.

• **14:30** Herri bazkaria, Barazki-gunean.

• **17:00** Kalejira elektrotxarangarekin, Barazki-gunetik hasita.

• **17:30** XXVII. Irurtzongo pilota txapelketako finala eta Domingo Nagoreren omenezko I.

emakumezkoen txapelketa.

• **20:00-22:00** Dantzaldia Modestorekin.

• **22:30** Kontzertuak

Larrazpin: Lubaki, Illuntzean eta RPG7.

Garagartzaroa 16, igandea

• **11:00** Erromeria Ergako Trinitatean.

Bakaikuarrek eta iturmendiarrek bat eginen dute Trinitatean

Trinitatearekin mendira igoko dira bi herrietatik. Iturmendik antolatzen du ospakizuna aurten. 10:00ak aldera hasiko dira igotzen. 12:30 aldera ermitan meza izanen da. Eta ondoren trikitilariak alaitutako auzatea izanen da. Mahaira 14:30ak aldera eseriko dira. 18:00etan jaitsi eta Iturmendin Sergei dj ariko da, 20:00etatik 23:00etara.



Kalejira egin zuten igandean taberna mustu aurretik.

Lizerratarren aurreneko festak, San Adrian, bertan dira

Bihar hasi eta astelehenera arte ospatuko dituzte lizerratarrek San Adrianen omenezko ospakizuna

LIZARRAGA

Sainduaren irudia herrian berderatziurrenerako izan ondoren, hura hartuta bihar berriro mendirako bidea hartuko dute lizerratarrek. San Adrian ermitaren ondoan ospatuko dute eguna, eta handik jaitsita herriko zortzikoa dantzatuko dute plazan. Etxi-kienak izanen dira protagonistak. Zortea probatu nahi duenak igandean, dantzaldi garaian, zozketarako txartelen bat eros- teko aukera izanen du, herriko produktuen loteak eta Bargazpi tabernan bi pertsonarendako afaria zozketatuko baitituzte.

Kontzejuarena den taberna izanen da aurtengo festetako berri- tasuna. Astelehenean goizetik musika animazioa izanen da eta herri afariarekin despidituko da eguna. Hari sintonia Joselu Anaiak taldeak jarriko dio. Egun horrekin 34. urtez ariko da Lizarragan jotzen Araiako taldea.

AURTENGO FESTEN BERRITASUNA DA KONTZEJUAREN TABERNA ZABALIK DAGOELA

Egitaraua

Garagarrilak 15, larunbata

• **10:30** Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.

• **13:00** Meza mendian.

• **17:30** Kalejira Amalur taldearekin.

• **18:30** Menditik jaitsiera.

• **19:00** Auzatea alkatearen etxean.

• **19:45** Lizarragako zortzikoa plazan eta 2018an jaiotako haurrei festetako zapia eman.

• **20:30** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

• **22:00** Herri afaria plazan.

• **24:00** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

Garagarrilak 16, igandea

• **12:30-14:30** Puzgarriak eta tandem.

• **13:15** Meza eta Amalur taldearekin kalejira.

• **16:30-19:30** Haurrendako puzgarriak eta tandem.

• **19:00** Auzatea plazan.

• **19:30-22:30** Dantzaldia Luzianorekin.

Garagarrilak 17, astelehena

• **11:00** Gosaria plazan. Goizean zehar Iñaki Bizkai akordeoilaria ariko da.

• **15:00** Kuadrillen bazkari autogestionatua.

• **19:00** Auzatea eta dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin, plazan.

• **21:00** Herri-afaria, plazan.

• **23:30** Gaupasa Joselu Anaiak taldearekin.



Bazkaldu ondoren aurreneko dantzak egiten dira.

Etxarriarren astelehena Sanadrianerako pasata

Atzoko San Kiriko eguneko astelehena pasa eta igandean San Adrian ospatzeko asmoz izanen dira

ETXARRI ARANATZ

Patroiaren eguna, San Kiriko, atzo ospatu ondoren, Etxarri Aranazko etxe askotan igandean ospatuko den San Adrian prestatzen hasiko dira gaur. Igandean udal berriaren aurreneko ekitaldi ofiziala izanen da, txistulariak lagun 09:00etan udaletxetik abiatuko da beheko basorantz. Udala eta herritarrak bidean diren bitartean udaleko langileak gosaria, fritada, prestatzen ariko dira, udala iristen denerako. 11:00etan izanen da gisatutako haragia eta haren saldarekin egindako zopa zerbitzatzen hasten direnerako. Tripan oinarri hori jarrita, ardoa eta alkoholik gabeko edaria zerbitzatzen hasiko dira.

Batzuk kupelen ondoan dauden bitartean, besteak mahaiak prestatzen eta bazkaria ontzeko suak piztuko dituzte. Haietan haragia erreko dute edo, ondoren, etxetik prestatuta eramandako eltzeak berotuko dituzte. Eguerdian ermitan meza izanen da eta handik aterata udaletxeko mahaiaren ondoan, 13:00etan dantzari txikiak dantza eginen dute. 15:00ak bitartean etxarriarrak, kupelen inguruan batzuk, familien mahaietan besteak, kontu kontari izanen dira.

Bazkaldu eta gero, 17:30 aldera, txistulariek mahairik mahai eramane dituen ibilbidea eginen dute eta hainbat tokitan geldituko dira, jendeak jotak eta porrusaldak dantzatu ditzen. Buelta eman eta gero, 18:00etan kintoek dantzakia dantzatuko dute.

19:00etan etxerako bidea hartu aurretik, Gernikako Arbola kantatuko da. Eta behin hori eginda herrirako kalejira luzean abiatuko dira etxarriarrak, dantzan eta kantatzen. Indarrak hartzeko lau geldialdi eginen dituzte eta haietan ardoa eskainiko zaie. Azkenekoan, Basopokalekoan, jende askok afaldu eginen du. Handik herrirako tartea kalejira Dantzaki segida etengabe bat bihurtuko da, plazako zelai berriari despidituko dena. Txistulariei Trikidantzek hartuko die lekukoa kioskoan, 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 2:30era.

Oharrak

- Prestaketan denak parte hartu, ez soilik andreak.
- Alkohola arduraz edan.
- Eraso matxistak eta bestelakorik ez da onartzen.
- Zabor guztiak jaso.
- Udaletxeko mahaietan daude: hautsontzi eramangarriak eta zaborretarako poltsak.
- Hondakinak sailkatu.
- Suak partekatu, eta ez piztu zuhaitzen ondoan.
- Basora sartzeko txartelik ez da behar
- Segurtasunagatik auto gutxi hobe, partekatu.
- Apartatzean oinezkoie eta autoei tokia utzi.

Aitzkozar badator: aurten Iturmendin

ATLETISMOA Iturmendiko Aitzkozar eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkarrekin antolatutako herri lasterketa larunbatean jokatu da, 17:00etatik Aurrera, Iturmendin. Txikienak 17:00etan ariko dira eta proba nagusia 18:00etan hasiko da

Aurten 14 edizio beteko ditu Aitzkozar herri lasterketak. Hasieran Iturmendiko izen bereko elkarrekin antolatzen zuen proba, baina duela zenbait urtetik hona Aitzkozar elkarrekin eta Bakarrekotxea elkarrekin antolatzen dute proba elkarlanean, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin. Urtero herri batek hartzen du lasterketa antolatzearen ardura eta aurten Iturmendin izango du irteera eta abiapuntua, bihar, larunbatean.

Lehenik eta behin kategoriatxikiko probak jokatu dira, 17:00etatik aurrera, Iturmendiko plaza inguruetan. Aurrebenjaminak (450 m), benjaminak (560 m),



Aurreko urtean Sanz eta Arratia izan ziren garaileak, Bakaikun.

kimuak (800 m), haurrak (1.600 m) eta kadeteak (2.400 m) lehiatuko dira, bata bestearen segidan.

Eta ondoren, 18:00etan, proba nagusia abiatuko da (8,1 km), Iturmendin hasi, Bakaikuraino iritsi eta, atzera ere, Iturmendira itzultzen den zirkuitu gorabeheratsuari bi buelta emanda. Jubenilek helduen proban hartuko dute parte, baina soilik itzuli bat emango diote zirkuituari (4, 05 km).

Aurreko urtean 119 korrikalarik hartu zuten parte guztira, horietatik 63 kategoriatxikietan eta 51 proba nagusian. Daniel Sanz (27:38) eta Maite Arratia (32:33) izan ziren txapeldunak, eta Sergio Garcia de Eulate (29:23) eta Erkuden San Martin (37:53) bigarrenak eta lehen sakandarrak.

Sari ematea, oroigarria eta auzatea

Herri lasterketa bukatzen denean, korrikalari guztiek auzate ederra izango dute zain. Antolakuntzatik azaldu dutenez, kategoriatxikietan hiru lehendabizikoek trofeoa jasoko dute eta korrika-

lari guztiei oroigarria banatuko die antolakuntzak.

Izena ematea zabalik

Aurretiazko izena ematea zabalik dago www.dantzalekusakana.com web gunean edo ondoko telefonoetan: 948 562 034 edo 606 398 802. Nolanahi ere, probaren egunean bertan izena emateko aukera egongo da Iturmendiko Aitzkozar elkarrekin, lasterketa hasi baina ordu bat lehenagotik. Prezioa: 5 euro.

Proban parte hartzea animatu dute, lasterketa polita delako, herrikoia, eta giro polita egoten delako. Aurreikuspenek eguraldi polita egingo duela dio; beraz, lasterketak dena izango du alde.

Sakanako Koparako baliagarria

Aitzkozar Sakanako Kopa-Lasa Kirolak txapelketarako bigarren proba puntuagarria da, apirilaren 6an jokatu zen VI. Ziordiko krosaren atzetik. Egundakumezkoetan Izaskun Beunza da lehena, Erkuden San Martinen eta Vanesa Galbeteren aurretik, eta gizonezkoetan Javi Moreno dago aurrean, Roberto Jerezen eta Javi Gasanzen aurretik.



Goitik Sakanako paisaje bikainez gozatzeko aukera izan zuten parapentelariak. Asko kanpotik etorri ziren. BAIZA PARAPENTE TALDEA

Parapenteek Sakanako zerua kolorez bete zuten

PARAPENTE Baiza Parapente Taldeak larunbatean Iturmendin antolatutako Sakanako Parapente Eguna arrakastatsua izan zen. Santa Marinatik makina bat hegaldi egin ziren eta ondoren kontzertuak, afaria, zozketak eta giro polita egon zen

Parapentelariak elkarren artean bildu eta euren zaletasunaz gozatzea, hegan egitea, hori izan zen larunbatean goiz goizetik Iturmendin bildu zirenen asmoa. Furgoneta asko ikus zitekeen aparkatuta, izan ere topaketak parte-hartze handia izan zuen, 150 lagunetik gorakoa.

Aurten Baiza Parapente Taldeak antolatutako festarekin bat egin zuen eguraldiak eta goizetik Santa Marinako bidea hartu zuten ekimenean parte hartu zuten parapentista, paramotero eta lagunak, bertako haize gunetik abiatu eta hegan egiteko. Batzuk oinez baina gehienak antolakuntzak egun guztian barna jarritako garraio eta furgonetei esker igo ziren gora, han parapenteak prestatu eta, haizea lagun, Sakanatik hegaldi bikainak egiteko. Eta biplazei esker, hegan egitearen sentsazioa probatu nahi zuten guztiek hegan egiteko aukera izan zuten. Horrela, kolorez bete zen gure zerua.

Bitartean, Iturmendin mokatutxo hartzeko aukera zegoen, eta parapente munduari lotutako material saltzaileek euren postuak jarri zituzten, mundu

honetan murgiltzeko argibideak emateko. Arratsaldean, hegaldiak eten eta Iturmendin bildu ziren zale guztiak, Kota Zero taldearen kontzertua entzuteko. Segidan afaltzera bildu ziren eta babesleek eskainitako opari ederrak zozketatu zituzten. Eta festa borobiltzeko, Patxuko taldearen kontzertuarekin festa ordu txikiak arte luzatu zen.

Plazer bat

Baiza Parapente Taldeak egunaren balorazio oso ona egin du. "Baiza taldetik eskerrak eman nahi dizkiogu Sakanako Parapente Eguna etorri ziren guztioi: material saltzaile, laguntzaile, parapentista eta paramoteroei. Eskerrak ere penintsulako toki ezberdinetik gerturatu ziren guztiei. Plazer bat izan zen, eta espero dugu hurrengo urtean ere gurekin egotea" diote.

Hurrena:

Baiza Parapente Taldeak Euskal Herriko II. Oinez & Hegan Txapelketa antolatu du ekainaren 29an, San Pedro egunean. Arbizu ekokanpinetik aterako dira parapentelariak.

Lakuntza-Aralar: Zarranz eta Oronoz nagusi

MENDI LASTERKETAK Proba nagusian Aritz Munarriz eta Arantzazu Larrañaga izan ziren lehen sakandarrak eta proba laburra Ibai Makazaga oriotarrak eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarrak irabazi zuten. Taldeka, A4xKm eta Txurregi dira txapeldunak

Korrika egiteko primerako eguraldia izan zuten lagun Lakuntza-Aralar mendi lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. 180 korrikalari aritu ziren proba luzean (26 km, 1.200 m desnibel +), lasterketak zuen parte-hartze muga, hain zuzen, eta 125 korrikalari proba txikian (12,5 km, 640 m desnibel +). Lasterketa zuzenean jarraitu ahal izan zen streaming bidez live.trailshot.com web gunean. Horretarako propio pantaila jarri zuen antolakuntzak plazan, eta Aritz Ganboaren "Bideak" proiektuaren barruan dron bidezko irudi ikusgarriak atera ziren. Lasterketa hasi eta ordu erdi beranduago Perthes gaitza duten senitarteak biltzen dituen Asfape elkartearen aldeko lasterketa solidarioa egin zen.

Haizea Ramirez de Alda ez zuen espero

Lasterketa abiatu eta ordu eskasera, proba laburreko txapeldunak hasi ziren iristen plazara. Talai taldeko Ibai Makazaga oriotarra (1:00:47) izan zen azkarrena, Iñaki Hormaetxeren (1:01:28) eta Eki Imazen (1:03:02) aurretik. Francisco Codon irurtundarra izan zen lehen sakandarra, helmugan 11.a (1:07:35). Eta aipatzekoa da emakumezkoetan Haizea Ramirez de Alda altsasuarra gailendu zela (1:18:44), Olatz Aranburu zeraindarraren (1:24:45) eta Dicastilloko Alba Azkonaren (1:25:32) aurretik. Atarrabiako Aimar Azpiroz izan zen lehen kadetea (1:04:18). Iraitz Senarrek (1:13:42) eta Nekane Aretak (1:37:55) jaso zituzten lehen lakuntzarren sariak.

Haizea Ramirez de Alda kontentua zegoen. "Ez nuen espero, orduan oso pozik nago. Iaz ibilbide luzea egin nuen eta duela bizpahiru urte motza. Beste plan batzuk genituen, aurten motza egitea erabaki genuen eta presiorik gabe, inoiz baino gehiago



Aritz Munarriz etxarriarra, proba luzea egin eta helmugara heltzen.

**ARITZ MUNARRIZ:
"ZEGAMAN ONGI IBILI
GINEN, BAINA GAUR
IGUAL GEHIAGO
DISFRUTATU DUT"**

**RAMIREZ DE ALDA:
"LAKUNTZA-
ARALARREN INOIZ
BAINO GEHIAGO
GOZATU DUT AURTEN"**



Proba laburreko podiuma: Haizea Ramirez gorenean, txapelarekin.

gozatu dut: igoeran topera, gero lortu dut errekuaratu eta jaitzian asko gozatu dut. Lokatz gutxi zegoen, normalean asko

egoten baita, eta oso ondo" aipatu zuen. San Juan bezperan jokatuko den Camille Xtreme izango da bere hurrengo erronka.

Proba nagusian oso azkar

Proba nagusian aurreikuspenek ez zuten huts egin eta Xabier Zarranz gailendu zen (2:05:47). Irunberrikoak helmugan aipatu zuenez, "oso azkar" atera ziren hasieratik. "Javi Lizarragak abiadura oso azkarra jarri du eta Irumugarrietaraino elkarrekin joan gara. Harrien gunean abiadura aldatu dut, hor ongi defendatzen naizelako eta, gutxika, aldea ateratzen hasi naiz" aipatu zuen. Iñaki Mihura (2:07:25) bigarrena sartu zen eta Jon Rolduejo (2:08:43) hirugarrena. Lehen sakandarra Aritz Munarriz etxarriarra izan zen, 10. a (2:17:23).

"Eguraldi bikaina izan da korritzeko. Lohi gutxi eta terreno ona. Zegamakoaz errekuaratu gara; han ongi aritu ginen, baina gaur igual gehiago disfrutatu dut. Hiru urte neramatsan Lakuntzako proba etorri gabe, eta oso gustura aritu naiz, giro oso ona zegoen. Hurrengo Camille Xtreme izango da" aipatu zuen Munarrizek.

Oso pozik zegoen ere emakumezkoen irabazlea, Enara Oronoz iruindarra (2:35:46). "Lasterketa honetan aritu naizen lehen aldia da eta ibilbide oso polita iruditu zait: hasieran basoa, gero harrien tokia, Irumugarrieta aldean mendi pila bat ikusten ziren... paisaia ezberdinak zeuden, eta gainera eguna oso polita izan da; korrika egiteko tarte oso ederrak daude" nabarmendu zuen. Bere erritmoan, "gozatzen eta disfrutatzen" joan zela gaineratu zuen, eta Lakuntzako Camille-Xtreme prestatzeko oso ondo etorri zitzaioela. Oronozek ez zuen aurretik izan, Izaskun Sanz bigarrena 17 minutura sartu zelako (2:52:35). Oihana Zubillaga izan zen hirugarrena (3:00:04). Lehen sakandarra Aran Larrañaga uhartearra izan zen (3:23:22). Proba nagusian, Mikel Embil (2:23:01) eta Izaskun Sanz (2:52:35) izan ziren lehen beteranoak, eta Oihana Zubillaga (3:00:24) eta Danel Sagarduy (2:40:44) lehen promesak. Eneko Otxagabiak jaso zuen lehen lakuntzarren saria (2:54:13).

Taldeka A4XKm txapelduna

Lakuntzako proba Euskal Mendi Federazioko Lasterketen Rankingeko puntuagarria izateaz gain, Nafarroako Taldekako Txapelketa izan zen. Gizonezkoetan Zarranz taldeak, A4XKm taldeak irabazi zuen Nafarroako

Sakandarrak

Luzea, gizonak

1.Xabier Zarranz (Irunb)	2:05:47
10.Aritz Munarriz (Etx)	2:17:23
11.Aritz Ganboa (Arru)	2:19:30
15.Joxeja Maiza (Etx)	2:21:58
35.Iker Flores (Alts)	2:35:28
40.Mikel Satrustegi (Arru)	2:36:53
44.Patxi Rubio (Uhar)	2:37:25
80.Eneko Otxagabia (Lak)	2:54:13
84.Asier Estarriaga (Etx)	2:55:04
85.Arkaiz Munarriz (Etx)	2:55:05
99.Ibon Ubeda (Etx)	3:01:18
103.Iñigo Aldunate (Lak)	3:03:35
110.Iñaki Arkauz (Lak)	3:06:44
126.Josetxo Albizu (Iru)	3:22:58
131.Araitz Jaka (Etx)	3:25:50

Luzea, emakumeak

1.Enara Oronoz (Iruña)	2:35:46
8.Aran Larrañaga (Uhar)	3:23:22

Laburra, gizonak

1.Ibai Makazaga (Orio)	1:00:47
11.Fco. Codon (Iru)	1:07:35
16.Ioseba Iza (Arb)	1:09:33
18.Fran Araña (Arb)	1:10:11
25.Iraitz Senar (Lak)	1:13:42
33.J. A. Maiza (Lak)	1:18:24
36.Unai Razkin (Iru)	1:18:46
39.Ruben Cantero (Alts)	1:20:26
41.Garat Flores (Arb)	1:21:04
42.Asier Gartzandia (Lak)	1:21:38
45.Javier Gonzalo (Uhar)	1:22:12
48.Aimar Araña (Etx)	1:23:22
49.Iñaki Agirre (Etx)	1:23:24
53.Julen Flores (Lak)	1:25:05
61.Urko Rekalde (Lak)	1:26:24
77.Xabier Maiza (Lak)	1:36:29
79.Luis Areta (Lak)	1:37:58

Laburra, emakumeak

1.Haizea R. de Alda (Alts)	1:18:44
7.Ioana Lopez (Etx)	1:28:31
11.Nekane Areta (Lak)	1:37:55
13.Ainhoa Etxarri (Lak)	1:38:13
18.Amaia Arangiz (Alts)	1:47:41
19.Olatz Monreal (Alts)	1:47:42
20.Estibaliz Arkauz (Lak)	1:51:13
21.Uxue Lazkano (Lak)	1:51:14

Kopa, Sarbil taldearen eta Hiru Herri taldearen aurretik. Emakumezkoetan Txurregik irabazi zuen eta Sarbil bigarrena sailkatu zen.

Balorazio ona

Zabalarte elkartek probaren balorazio ona egin du. "Partehartze gehiago egon da. Proba nagusirako genituen 180 dortsalak larunbatean agortu ziren eta proba laburrean ere 125ek eman zuten izena. Eguraldi bikaina zegoen eta lohi gutxi. Harritu gaituena da bihurritu asko egon zirela, Arangun pare horretan, jaitzierakoan. Horretaz gain, ez zen aparteko arazorik izan eta kontentua gaude" azaldu zuen Zabalarteko Iraitz Berastegik. Guztia ongi ateratzeko 80 boluntariotik gora aritu ziren lanean. Ikusgarri zegoen Aralar eta egun borobila atera zen.



Tritoienako lehen edizioan Mercero, Lizarraga eta Txueka omendu zituzten. Etzi aurten zendutako Mercero gogoan izango dute.

Tritoiena lasterketak, Beriaín helburu

MENDI LASTERKETAK Igandean, 9:30ean, III. Tritoiena mendi lasterketa abiatuko da Arbizuko kanpinetik. Beriaín helburu duen probak 20,65 km ditu paraje ikusgarrietatik barna. Eguraldi ona iragarri dute eta oraindik ere izena eman daiteke

Arbizuko kanpinak eta Dantzaleku Sakana atletismo klubak, Ergoienako Udalaren laguntzarekin eta hainbat babeslerekin, III. Tritoiena mendi lasterketa antolatu dute igandean, ekainaren 16rako. Aurten, lehenengoz, proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria izango da.

Beriaín ardatz nagusi hartuta, izako ibilbide berbera izango du lasterketak, baina hasieran korrikalariak buelta bat emango diote Arbizuko kanpinari. Horrela, ibilbidea luzatu eta aurten 20,650 km izango ditu probak. Ondoren, Ondatzera iritsi eta handik Unanura jaitsiko dira korrikalariak, herrira. Unanutik

Beriaín igo, Uharteko portutik jaitsi eta Ondatzetik atzera ere Arbizuko kanpinera iritsiko dira korrikalariak. "Ibilbidea ederra da, elegantea, airean joateko moduan, eta Beriaín ardatz hartuta, Beriaínek duen erakarmen horrekin, lasterketa polita da Tritoiena" esan digute Arbizuko kanpineko arduradunek. Hiru

hornidura gune izanen dira, Unanun, Beriaín eta Ondatzen, eta bi ur hornidura, Beriaingo pala igotzen eta Uharteko portuan.

Aurreikusten denez, korrikalari azkarrenak ordu bat eta hiru ordu laurden inguruan hasiko dira helmugara iristen. Korrikalariak ikusteko edozein toki da aproposa, baina Unanuko xenda, Beriaín, Uharteko Arakilgo portua eta Ondatz "paregabeak" direla nabarmendu dute.

Aurreko urtean 44 korrikalarik osatu zuten proba eta Jon Alberdi zestoarra (1:43:11) eta Ainhoa Jauregi donostiarra (1:43:11) izan ziren azkarrenak. Guztia ongi ateratzeko 30 boluntariorik gora ariko dira lanean.

Sariak eta auzatea

Bukaeran korrikalariak auzate ederra izanen dute zain. Sari banaketa 12:45ean hasiko da. Korrikalari guztiek poltsa jasoko dute, produktu sortaz beteak: ardo botila, kafea, esnea... Horretaz gain, txapeladunek txapela, Unanuko ihoteetako kattola eta produktu lotea jasoko dute opari, bigarrenak Arbizuko kanpinean egonaldia eta produktu lotea eta hirugarrenak bazkaria edo afaria Arbizuko kanpinean eta produktu sorta.

Izena ematea zabalik

Aurreitiazko izena ematea zabalik dago www.rockthesport.com gunean, eta proba hasi baino lehen, Arbizuko kanpinean.

Bihar Trinitate Igoera

Guan Taldeak, Irurtzungo Udalaren eta babesleen laguntzarekin VI. Trinitateko Igoera antolatu du bihar, larunbatean. Korrikalariak goizeko 10:00etatik aurrera aterako dira aska plazatik, baina dortsalen banaketari 9:30ean ekingo zaio.

Korrikalariak Ergako Trinitateko baselizara igo beharko dira, (3 km eta 500 metroko desnibel positiboa). Banaka aterako dira eta kronometratutako proba izanen da, bidean bilduko diren ikusleen txalo eta animo artean. Giro oso polita izaten da, Trinitateko festei hasiera bikaina emateko primerakoa. Bukaeran guztiendako otamena izango da Trinitateko baselizaren ondoan.

Aurreko urtean irabazleak Imanol Kañameres (23:58) eta Maria Loizu (30:36) izan ziren.

HASI BAINO LEHEN MINUTU BATEKO ISILUNEA GORDEKO DA JOXE MARI MERCEROREN ALDE

544 txirrindulari Altsasuko BTT Zeharkaldian

BTT Eguraldi bikainaren laguntzarekin goiz ederra pasa zuten zeharkaldian parte hartu zuten txirrindulariek

Aurreikusten ez zen primerako eguraldia lagun zutela, gozatu ederra hartu zuten XXIV. Altsasu BTT Zeharkaldian parte hartu zuten 544 txirrindulariek. Barranka Txirrindulari Taldeak antolatuta, bi aukera zituzten: ibilbide luzea (52 km) eta ibilbide laburragoa (40 km), eta gehienek ibilbide motzaren alde egin zuten.

Bikerrek aurten prestatutako ibilbidea "oso gustuko" izan zutela nabarmendu zuen Altsasuko BTT zeharkaldiko arduradun Felipe Troyanak. "Bizikletan

ibiltzeko egin ahal zuen eguraldirik onena egin du, goizean fresko eta gero eguzkia, tenperatura atsegina" aipatu zuen. Garrantzi handiko erorketa batzuez gain, ez zen aparteko arazorik izan eta txirrindularien festa handia izan zen igandekoa.

Altsasuko alkate Javier Ollok egin zuen probaren hasierako zinta mozketa. Bikerrek gogotsu ekin zioten lanari, eta guztiek batera egin zuten lehenengo zatia: Beikolar, Ibarrea, Sorozarreta, Orobe, Amezitia, Santa Luzia Sakan eta San Pedro, gero Ur-



Aurtengo ibilbidea oso polita zela esan zuten Altsasuko proba ez lehiakorren parte hartu zuten txirrindulari askok. N. MAZKIARAN

diaindik barna Iturmendiko gainera heltzeko. Ibilbide motzekoak Altsasuko helmugaraino buelta egin zuten, eta ibilbide luzeak, aldiz, Etxarri Aranazko igerilekuetaraino iritsi ziren, buelta hartu eta Txuixoo harro-

bitik Bakaikuraino iritsi eta handik Altsasuko helmugaraino joateko.

Ibilbidean barna 3 hornidura gune egon ziren eta helmugan bikerrek opariak eta oroigarriak jaso zituzten. Ibilbidea oso poli-

ta zela eta antolakuntza bikaina nabarmendu zuten txirrindulariek. Eta guztia behar bezala prestatzeko, ehun pertsona inguru ibili ziren lanean, Barranka Txirrindulari Taldearen esanetara.

"Urte batean preferentera igotzea lortu dugu"

FUTBOLA Erregional mailako denboraldia bukatu da. Igoera fasean bigarrena sailkatu da Lagun Artea eta mailaz igo eta preferentean ariko da berriz. Altsasu, aldiz, igoera fasean 7.a sailkatu da eta hurrengo denboraldian maila horretan jarraituko du

Asteburuan erregional mailako igoera faseko 14. eta azken jardunaldia jokatu zen. Lagun Arteak Amaya izan zuen aurkari Iruñean. Nabilek, Unaik (2) eta Yonathaneke sartutako golei esker, 3 eta 4 irabazi zuten lakuntzarrek. Bestalde, Altsasuk Iruntxiki hartu zuen Dantzalekun; Beriaingoak aurreratu ziren, eta nahiz eta Altsasu etengabe saiatu, markagailua ez zen gehiago mugitu eta 0 eta 1 galdu zuten altsasuarrek. Igoera fasean Lagun Artea 2.a sailkatu da eta Altsasu 7.a.

Lagun Arteak balentria lortu du: iaz preferente maila galdu zuen, baina aurten, denboraldi eskas batean, erregionaleko igoera fasean bigarrena sailkatu eta preferentera igotzea lortu du. Taldeko delegatu Oscar Maizarekin bildu gara.

Bukatu berri den denboraldiko balorazio positiboa egingo duzue, ez? Zalantzarik gabe denboraldiaren balorazioa oso ona da: preferen-



Lagun Arteakoak, igoera ospatzen eta doazen jokalariek omentzen. LAGUN ARTEA

"ORAIN HURRENGO DENBORALDIAN PENTSATZEA DAGOKIGU; GUZTIZ EZBERDINA IZANGO DA"

tera igotzeko helburua lortu dugu, kategoria galdu eta denboraldi batean. Aurten erregional mailako liga oso ongi hasi genuen, goiko postuetan, eta alde horretatik ez dugu gehiegi sufritu. Multzoko liga erregularra ira-

bazi eta gero, igoera faserako sailkatu ginen. Esan beharra dago hasieran pixkat behera egin genuela. Futboleko gabiltzanok dakigun bezala, denboraldian beti gertatzen da, talde guztiek beheraldi edo txahalaldi bat izaten dute, baina egoerari buelta ematen jakin genuen eta, azkenean, bigarrenak sailkatu gara igoera fasean, Ardoi liderrarengatik puntu eskas batera.

Igoera ospatuko zenuten, baina orain lan dezente izango duzue klubean, taldea maila berrira egokitzeko.

Hemendik aurrera hurrengo denboraldian pentsatzea dagokigu, guztiz ezberdina izango da. Entrenatzaile berberarekin jarraituko dugu, Alberto Martin Davilarekin, eta orain gauza asko ditugu aztertu eta erabakitzeko: zenbat jubenil igoko diren talde nagusira eta beste. Izan ere, baja garrantzitsuak izango ditugu, Xabier Burillo kapitainarena esaterako, Lagunen urte asko eman eta gero futbola utziko baitu. Markel Erdozia ere badoa, eta baita Eneko Cruz, bere garaian taldeari esku bat emateko etorri zena, eta David Herrera atezaina, fabore bat egiteagatik ere etorri zena. Gauza asko daude lotzeko. **Urte batean igoko zinetela espero zenuten?**

Mailaz igotzeko moduko taldea bagenuen, baina erregionala kategoria oso konplikatu da, uste baino gehiago, igoera fasea batez ere. Pozik gaude.



Auto hau ere Olaztin egongo da. BARANDI

AUTOMOBILISMOA Bihar autoen kontzentrazioa hartuko du Olaztik

Automobilismoak Olaztin zaletu asko dituela ez da berria. Urbasako Igoerari eta Olaztiko Rallysprintari beste topaketa bat gehitu behar zaie, Barandi tabernak bihar, larunbatean, antolatuta duen Autoen Kontzentrazioa. Tabernaren ondoan izanen da, Olaztiko Sarasate plazan, goizeko 11:00etatik aurrera. Denetariko autoak espero dira, 20tik gora, asko abiaturari eta lasterketari lotutakoak: Mitsubishi Lancer EVO, Ford Focus RS, BMW M3, Ford Sierra, Subaru... Auto ikusgarri horiek gertutik ikusteko aukera izanen da, pilotuek harmaiketako hartzen duten bitartean. Ondoren, auto guztiak Urbasara igoko dira, eta ondoren Barandira buelta egingen dute.



UTZITAKOA

Aguraingo kopa Sakanara

FUTBOLA Aguraingo Miguel Izagirre Memoriala benjaminen futbol 8 torneoan Sakanakoak izeneko taldeak hartu zuen parte, Irurtzun, Irañeta, Altsasu eta Olaztiko gaztetxoek torneorako propio prestatutako taldea. Bikain aritu ziren eta Kopa irabazi zuten, Lakua Arragari irabazita.



XOTA

Xota final laurdenetan erori zen

ARETO FUTBOLA Osasuna Xota jubenilen mailako taldeak Espainiako Kopako azken fasean jokatu du, Las Rozasen. Final laurdenetan txapelketatik kanpo geratu zen talde irurtzundarra, Maristas Valenciaren kontra 0 eta 6 galdu eta gero. Nolanahi ere, denboraldi bikaina egin dute.

ARETO FUTBOLA Xotako abonua berritzeko kanpaina abian

2019/2020 denboraldiko abonua berritzeko kanpaina asteazkenean zabaldu zen, ekainaren 28ra arte. Egun talde berdeko abonatuak direnak denboraldi berriko euren txartelak klubaren bulegoetan jaso ahal izango dituzte, Iruñean eta Irurtzun, 18:00etatik 20:00etara. Prezioak antzekoak dira: familia abonua (bi nagusi eta 17 urte bitarteko seme-alabak) 120 euro, nagusiek 60 euro, gazteak (17 urtera arte) 40 euro, langabetuek 40 euro eta txikiek doan. Osasuna futbol taldeko bazkideek beharpena izango dute. Bukatu berria den denboraldian batz bestea 2.500 zaletu bildu dira Anaitasun Osasuna Magna Xota animatzera.



Martxel Etxeberria kadeteen 2. urteko Euskadiko txapelduna da. EUSKADIKO FEDERAZIOA

Martxel Etxeberriak pausua eman du aurrera

TXIRRINDULARITZA Larunbatean Arronizko lasterketa irabazi zuen eta igandean Euskadiko Kadete Txapelketa

Orain arte bere anaiaren, Josu Etxeberriaren itzalean zegoen Martxel Etxeberria txirrindulari iturmendiarrak, baina gutxika, anaia gaztea, Sakana Group Aralar taldeko kadetea, burua jasozten ari da. Orain arte hirugarren eta bigarren postu batzuk egin izan ditu Martxelek, baina asteburuan gora egin zuen gazteak.

Larunbateko Arronizko lasterketa (57 km) nahasia izan zen. Azkenean, eraso jo zuen Martxel Etxeberriak eta bakarrik iritsi zen helmugara. 2 segundora El Volante jatetxea taldeko Xabier Zabala sartu zen. Hugo Azkar (Q. Albeniz) 6.a iritsi zen, Jon Erdozia (Sakana G.) 7.a, Mikel Uncilla (Q. Albeniz) 8.a, Sergio Lopez (Q. Albeniz) 12.a eta Jon Chamorro (Q. Albeniz) 25.a. Jon Chamorro tartekako helmugen saria irabazi zuen. Arronizko lasterketa Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen eta proba irabazteaz gain, txapelketan lider jarri zen Martxel Etxeberria.

Sakandarrak bikain Euskadiko Kadeteen Txapelketan

Hurrengo egunean Kadeteen Euskadiko Txapelketa jokatu zen Irunen. Bigarren urteko kadeteen proban (68,4 km) estrategia bikain atera zitzaion Martxel Etxeberriari eta, bezperan bezala, bakar bakarrik iritsi zen Irungo helmugara (1:53:43). 8 segundo atera zizkion Limousin taldeko Unai Zubeldiari. Hugo Aznar 19.a sailkatu zen eta Jon Erdozia 23.a. Proba irabazteaz gain, tartekako helmugen saria

irabazi zuen Martxel Etxeberriak eta Euskadiko 2. urteko kadeteen txapelduna da.

Lehen urteko kadeteen lasterketari dagokionez (45,6 km), Augar taldeko Beñat Garaiarrek irabazi zuen proba, Rural Kutxako Markel Galparsorori segundo bat eta Burundako Quesos Albeniz taldeko Mikel Uncillari 3 segundo aterata. Aimar Tadeo (Sakana G.) 6.a sailkatu zen eta Alex Lopetegi (Sakana G.) 33.a.

Juniorrak: Alberdi 2.a Tafallan

Denboraldian podiumaren bigarren koxkara sarritan igotzea tokatu zaio Sakana Group-Aralar taldeko Aitor Alberdi arbuzuarri, aurreko asteburuan azken aldia. Igandean juniorren lasterketa jokatu zen Tafallan (108 km), eta sprintean erabakitako lasterketan Beolako David Lozano gailendu zitzaion Aitor Alberdi (2:43:20). Lizarteko Jon Gil 6.a sailkatu zen, 12 segundora, Inhar Astitz (Sakana G.) 13.a sartu zen eta Diego Gonzalo (Q. Albeniz) 14.a, biak 2:35era. Mikel Lizasoain (Sakana G.) 18.a iritsi zen, Iker Mintegi (Q. Albeniz) 23.a eta Urko Gorriti (Sakana G.) 28.a.



Aitor Alberdi, Tafallan. UTZITAKOA

Lakuntza, emakume txirrindularien bilgunea

TXIRRINDULARITZA Bihar, larunbatean III. Lakuntzako Emakumeen Trofeoa jokatu da, 15:30etik aurrera. Kadeteak, juniorrak, afizionatuak eta eliteak lehiatuko dira, Emakumezkoen Euskaldun Torneorako baliagarria den proban

Emakumezkoen tropeleko onena bilduko da bihar, larunbatean, Sakana Group-Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatutako III. Lakuntzako Emakumeen Trofeoan, kadete mailatik hasita, junior eta afizionatuetara arte -23 urtez azpikoak eta eliteak-. Proba Emakumezkoen Euskaldun Torneorako baliagarria da.

Ibilbide berria

Ibilbidean aldatetatxo batzuk egin ditu antolakuntzak. Lakuntza oinarri hartuta bi zirkuitu prestatu dituzte. Bata, Lakuntzako plazatik atera, Mankomunitateraino joan, errepidean ezkerre egin eta Arruazura heltzen dena, Arruazu gurutzatu, Uhartetarako Arakilerak heldu eta industrialdetik Itxesi auzora atera eta gero, bigarren errepidetik Lakuntzara heltzen dena (11,1 km). Eta, bigarren zirkuitua, Lakuntzako plazatik atera, Mankomunitateraino iritsi eta errepidean Arbizurantz doana, San Juan ermitara doan bidea hartu eta errotondara heltzerakoan Lizarragako portuari ekiteko. Dorraoko bidegurutzean sartuko dira txirrindulariak, Dorrao gailenditu eta aurrera eginez, Unanura heltzeko. Han buelta hartu, eta errotondan Utzubar industrialdean sartuko dira, ITVa dagoene



Emakumezkoen tropeleko onena bilduko da bihar Lakuntzako proban.

tokian eskuinera egin eta, ondoren, errotondan, Arbizuko norabidea hartu eta hura gaindituta, Lakuntzako industrialdera sartu eta Abarrategi kalean gora eginez, Lakuntzako plazara heltzeko (16,3 km).

Bi zirkuitu horiek erabiliz osatuko da proba. Horrela, 15:30ean kadete mailako txirrindulariak abiatuko dira. Lehen zirkuituari bi itzuli eta bigarren zirkuituari itzuli bat egingo dizkiote (38,5 km). Elite mailako txirrindulariek 16:45ean ekingo diote lasterketari. Lehen zirkuituari

4 itzuli eta bigarren zirkuituari itzuli bat egingo dizkiote (60,7 km-). Junior mailakoak eliteen lasterketara gehituko dira eliteak lehen zirkuituari buelta bat eman eta gero, 11,1 kilometroan, handik aurrera lehen zirkuituari 3 itzuli eta bigarren zirkuituari itzuli bat egiteko (49,6 km). "Lasterketa ikusgarria da, zalantzarik gabe" diote antolatzaileek.

Txirrindularien artean sakan-darrak egongo direla aurreikus-ten da, Ermitagaña Nafarroa taldeko Nahia Imaz eta Maria Beraza, esaterako.

Aramendia 3.a Loinazen

TXIRRINDULARITZA LXIX.

Loinaz proba ezagunean (124,9 km), esprintean Baqueko Oier Iburguren gailendu zen (3:06:25) eta Goierriko TB-Laboral Kutxako Eneko Aramendia iturmendiarrak 3.a sartu zen. Rural Kutxako Josu Etxeberria iturmendiarrak 5.a iritsi zen eta Laboral Kutxako Ailetz Lasa ziondiarrak 32.a. Taldeka Goierriko TB-Laboral Kutxa izan zen onena.



UTZITAKOA

Iskizakoak, denboraldiari ginda jartzera

GIMNASIA ERRITMIKOA Gaur, ostiralean, 19:30ean, Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikako eskolako taldeek eta txapelketako taldeek ikasturte bukaerako erakustaldia egingo dute Iortia Kultur Gunean

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikako taldeak denboraldi ederra egin du eta gaur, ostiralean, 19:30ean, ikasturtean landutako koreografia guztiak etxean aurkeztuko ditu, Altsasuko Iortia kultur gunean. Primerako denboraldiari ginda jarriko diote, eta erakustaldian sorpresak ere iragarri dituzte.

Iskizako monitorea Olaia Granizok denboraldiaren balorazioa egin dugu. Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikako Taldeak bi adar ditu: eskola, Irati Begiristain eta Eider Goikoetxea monitoreekin, eta Iskiza txapelketa taldeak. "Eskolan gimnasia erritmikako lehendabiziko tre-



Iskizako kadeteak, Arabako txapelkunak. ISKIZA SAKANA

bakuntza egiten dute, eta interesa eta gogoak dituztenak txapelketa taldeetara pasatzen dira. Txapelketan hiru kategoria daude: kimuak, haurrak eta kadeteak".

Kimuen mailako monitorea Maria Remolina da. 8 gimnasta ditu bere esanetara, horiek "oso ongi ibili dira. Soka izan dute aurten landu beharreko aparatua eta hasieran kosta zitzaien, baina gero primeran ibili dira" dio Granizok.

Haurrak Nafarroako hirugarrenak eta kadeteak Arabako txapelkunak

Iskizako haurren mailan 5 gimnasta daude eta Olaia Agirre da monitorea. Aurten, taldeko 3 gimnastek zinta eta beste biek pilota landu behar izan dute. "Lan bikaina egin dute, Nafar Kirol Jolasetako Nafarroako Txapelketan hirugarren postua lortu dute eta oso pozik gaude. Hasieran pentsatu genuen zinta oso zaila egingo zitzaizela, konplikatu delako, baina pentsatzen genuena baina askoz hobe aritu dira" aitortu digu Granizok. Zinta da aparatuerik konplikatuena.

"Politena da baina, azkenean, ia gimnasta guztiek mania hartzen diote. Zinta beti mugitzen egon behar da, ezin du lurra ikutu, ezin du gimnasten gorputza ikutu..." azaldu digu Granizok.

Kadeteek urte konplikatu izan dute. "Nik entrenatzen ditut kadeteak. Hasiera batean taldean 5 ziren eta Nafarroako Txapelketara aurkeztu ziren, baina azkenean batek ezin izan zuen jarraitu eta 4 gelditu zirenez, ezin izan zuten Nafarroako txapelketan aritu. Aldiz, Araban lau kideekin taldekako txapelketara aurkezteaz zuten dute eta Arabako txapelketan aritu gara, ezin hobe. Pilotak eta uztaiak erabili zituzten eta Arabako taldekako txapelketako kadeteen mailan txapelkunak izan ziren Iskizakoak. Denboraldi gogorra izan zen beraiendako, baina azkenean bikain bukatu dute" nabarmendu du Olaia Granizok.

Orokorrean denboraldia "oso ona" izan dela azpimarratu du Granizok, eta gaurko erakustaldian urte guztian landutakoa erakusteko "irrikitan" daudela. Gaur Iortia gerturatzeko gonbita egin du monitorea.

SASKIBALOA 3x3 Altsasukoak Aske saski txapelketa bihar

Altsasuko CBASK saskibaloit taldeak Altsasukoak aske 3x3 Saskibaloit Txapelketa antolatuko du larunbaterako, Altsasuko Intxostiapuntako saskibaloit pistetan. Egun osoko ekimena izango da, kirola, festa eta aldarrikapena uztartuko dituen.

Goizeko 10:00etan emango zaio hasiera txapelketari; hiru kidez osatutako taldeen arteko saskibaloit txapelketa izango da, bi kategorietan, nesketan eta mutiletan. Saskibaloit txapelketan parte hartu nahi duten taldeek ondoko telefonoan eman behar dute izena: 608 163 752.

Goizeko 10:00etan hasiko dira partidak. 14:00etan bazkalduko dute, parrillada. Ondoren, berriro ekingo zaio txapelketari, eta giroa berotzeko 17:00etan DJ Txenek musika jarriko du. Finalaren aurretik kontzentrazioa egoinen da "Altsasukoak kantara!" lelopean, eta indarrak berreskuratu eta festa borobiltzeko gaueko 22:00etan bokatada izanen da.

Nork jantziko ditu Irurtzungo txapelak?

PILOTA Larunbatean, 17:30ean, gizonezkoen XXVII. Irurtzungo eta Arakilgo Txapelketako finalak eta Emakumezkoen I. Domingo Nagore Memorialeko finalak jokatuko dira Irurtzunen. Bi sakandar daude, Olaetxea unanuarra eta Arbizu etxarriarra

Azken hilabeteotan pilotaz gozatzeko aukera paregabea izan da Irurtzunen. Izan ere, urtero moduan, afizionatuen mailako pilotari onenak lehiatu dira Irurtzungo eta Arakilgo Pilota Txapelketan. 27. edizioa bete du afizionatuen mailan izen handia duen txapelketa honek, baina Irurtzunen berdintasunean pausu bat eman dute aurrera eta aurten, lehenengoz, Emakumezkoen I. Domingo Nagore Memorialeko antolatuko dute, emakumezko pilotarietako lau t'erdian jokatutako txapelketa. Txalotzeko irurtzundarren ekimena.

Orain arteko ligaxka, final laurdenak eta finalerdiak eraba-



Aurreko urteko finalista batzuk.

kita, larunbatean, Irurtzungo Trinitate festetan, bi txapelketako finalak egongo dira jokoan. Emakumezkoetan Maite Ruiz de Larramendi ameskoarrak Iera Agirre leitzarria izango du aurkari, eta ikusteko dago ea nor gailenduko den, beterranoa hala gaztea.

Bi sakandar: Olaetxea eta Arbizu

Gizonezkoetan bi ordezkari sakandar izango ditugu. Promesetan, Olaetxea unanuarra Apeztearekin osatuko du bikotea, Ruiz de Larramendi eta Azkarraga amezketarren kontra jokatuko. Eta, seniorretan, Arbi-

zu etxarriarrak Uribe izango du biko, Ongay satrustegierra eta Bergera arruazuarra bidean utzi zituzten Iriarteren eta Sarasaren kontra egiteko. Aspaldiko partez irurtzundarrik gabe jokatuko dira finalak. Txapelketako partidak, orohar, eta finalerdiak, bereziki, oso lehiatuak izan ziren eta espero dezagun bihar Irurtzuneran hurbiltzen diren zaleek puntako partidez gozatzea.

Finalak

Bihar, larunbatean, 17:30etik aurrera Irurtzunen jokatuko diren finalak:

Emakumezkoen I. Domingo Nagore Memoriale
• **Lau t'erdian:** Maite Ruiz de Larramendi / Iera Agirre

Gizonezkoen XXVII. Irurtzungo eta Arakilgo

Txapelketa
• **Promesak:** Ruiz de Larramendi-Azkarraga / Olaetxea-Apezteare
• **Seniorrak:** Iriarte-Sarasa / Uribe-Arbizu

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 14

ARBIZU 47ak herrian, Fran Balda herrian plataformaren bilera.
18:30ean, udaletxeko batzar gelan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Dantzaz, musikaz... Iskiza. Iskiza Sakana klubeko ikasturte bukaerako erakustaldia.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

LAKUNTZA Irantzuz Gonzalez Dantza Eskolako Lakuntzako ikasleen Munduko dantzak ikuskizuna.
19:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Trinitate festak. Ultzamako Amati, Berriobeitiko Ametza eta Irurtzungo abesbatzen kontzertua.
20:00etan, San Martin eliza.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

LARUNBATA 15

IRURTZUN Trinitate festak.
09:30etik aurrera, plazan.

OLAZTI Autoen kontzentrazioa. Hamaiketakoa, Urbasara igoera eta jaitsiera. Barandi tabernak antolatuta.
11:00etatik 14:00etara, Sarasate plazan.

ETXARRI ARANAZ Abesbatza txikiaren kontzertua.
18:30ean, Andra Mari basilizan.

ARBIZU Nogen eta The Rodeos taldeen kontzertua.
19:00etan, Arbizuko ekokanpinean.

ALTSASU Trasteando eta Milakolore: kontzertu solidarioa.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 16

IRURTZUN Trinitate festak: Ergako trinitatera erromeria.
11:00etan, herritik.

ETXARRI ARANATZ San Adriñ eguna. Erromeria,

hamaiketakoa eta bazkariak.
09:00etatik aurrera, herritik.

ETXARRI ARANATZ San Adriñ eguna. Trikidantz taldearen kontzertua.
20:00etan eta 22:30ean, plazan.

ASTELEHENA 17

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.
12:00ean, Aita Barandiaran zehar egoitzan.

ASTEARTEA 18

ALTSASU Euskaraldia. Zer egingo dugu Altsasun? Bilera irekia.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ASTEAZKENA 19

ALTSASU Dementia fase desberdinetan elikadurari heltzearen beharra hitzaldia. AFAN elkarteak antolatuta. Izena emateko 948 275 252 edo 948 410 299 telefonoetan.
17:15ean, Josefina Arregi klinikan.



UTZITAKOIA

IRURTZUN Chuffi-ren margolanen erakusketa. Ekainaren 15era arte. Pikuxar Euskal Txokoan.




UTZITAKOIA


OLAZTI Olaztiko eta Ziordiko margoketa eta lentzeria ikastaroen erakusketa. Larunbatean 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara, kultur etxean.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 14





Larunbata, 15



Igandea, 16



Astelehena, 17



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Domingo Paz Perez

(Javi Paz Miño Altsasuko Eh bilduko zinegotziaren aita)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

ehbildu

Altsasuko Eh bildu

ESKELA

Maria Esther Zelaia Auzmendi



"Gure ortzadar"

Ebakoak
Bakaiku

ESKELA



Maria Esther Zelaia Auzmendi

(Alejandro gure lankidearen eta Txaro Galartza zinegotziaren ama)

Besarkada haundi bat familiarendako

Iturmendi eta Bakaikuko udal langileak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



JAIOTZAK

- **Haizea Aguilar Rodrigues**, maiatzaren 25ean Urdiainen
- **Maule Garzandía Jauregi**, ekainaren 1ean Arbizun
- **Izei Carrascal Ardanaz**, ekainaren 1ean Irurtzunen
- **Iker Barriga Lovatti**, ekainaren 3an Altsasun
- **Enar Claver Garcia de Albizu**, ekainaren 8an Altsasun
- **Alba Martin Garcia**, ekainaren 8an Irurtzunen
- **Eneko Iraizoz Cuba**, ekainaren 9an Irurtzunen
- **Laia Razkin Martinez**, ekainaren 9an Lakuntzan
- **Luna Prieto Martin**, ekainaren 9an Altsasun

EZKONTZAK

- **Francisco Javier Dorransoro Artola eta Uxune Beristain Aldasoro**, ekainaren 6an Etxarri Aranatzen
- **Andoni Azanza Soto eta Jaione Loban Mundiñano**, ekainaren 8an Etxarri Aranatzen

HERIOTZAK

- **Teresa Berastegi Lakuntza**, ekainaren 6an Arbizun
- **Sabina Anso Fernandez**, ekainaren 9an Bakaikun
- **Maria Esther Zelaia Auzmendi**, ekainaren 10ean Bakaikun
- **Liboria Goikoetxea Mendiluze**, ekainaren 10ean Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

LOKALA ERRENTAN
Etxarri Aranatzen lokal komertziala alokatzen da: 72 metro karratuko azalera du eta bulego bezala prestatu dago, herriaren erdigunean. Interesatuak deitu 635 740 439 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA
Urdiaingo Udalak begiralea kontratatu nahi du 'Udan euskaraz' kanpainarako: lanaldia ekainaren 24an hasi eta uztaile amaite arte izango da. Ezinbestekoak EGA edo balioak. Lan motarekin lotutako ikasketak ere baloratuko dira. Izena emateko azken eguna ekainaren 21ean, Urdiaingo udal txanok.

Lakuntzako Udalak Udan Euskaraz Jolasgunerako begiraleak kontratatu nahi ditu: lanaldia ekainaren 20tik uztailearen 26ra, 10:00etatik 13:00etara izango da. Interesa dutenek Curriculum-a eta ekintzen proposamena ekainaren 14an aurkeztu beharko dute Udal txanok. EGA edo balioak izatea derrigorrezkoa izango da.

Bakaikuko Udalak begiraleak behar ditu: Bakai-

kun Euskaraz 3-12 urte bitarteko aisialdi ekimenerako. Lanaldia ekainaren 26tik uztailearen 19ra izango da, goizetan. Interesatuak Curriculum-a udal@bakaiku.eus postara bidali lehen bait lehen.

OHARRAK

SDOZ Eren Udaberriko tonbolako zozketaren zenbaki sarituak: Tablet 3708 / Smartwatch 1878. Saridunak Xagu informatikatik pasa daitezke. Sakana Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak.

Irurtzango musika eskola: matrikulazioa garagarriaren 17an, 18an eta 19an eginen da, 16:30tik 20:00etara, musika eskolan bertan.

Odol-emateak Ziordin: garagarriaren 18an, 17:30tik 20:30ra.

Olatziko Udalaren Bandoa: San Juanetako su txikiak kalean egitera animatzen diren bizilagunek udal txanok jakinarazi ekainaren 17a baino lehen, lurra babesteko materiala jartzeko.

Igeriketa ikastaroa Lakuntzan: uztailearen 1etik 31ra, astelehenetik ostiralerara burutuko da. Izen ematea Udaleko webgunean, ekainaren 24ra arte, www.lakuntza.eus-en.

Lakuntzako San Saastin musika eskola: 2019-2020 ikasturterako matrikula egiteko epea gaur, ostirala, amaitzen da. Garagarriaren 24an instrumentu-erronda eginen da haur eta helduentzat. Interesatuak Udal txanok izena eman behar dute ekainaren 20a baino lehen.

Sakana Trenaren alde AHTRik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzeko dira. Bilerak Sakana herri ezberdinetan txandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Sakanan Zibersegurtasun ikastaroa: Ekainaren 21, 24 eta 26an, 9:30tik 12:30ra, Irurtzango Dina-biden. Inskripzioak 672 885 590 tfnora edo oarregi@sakanagaratzen.com postan.

11/12 SUMARIOA: 47 auzipetu hiru bat hilabetez Madril en epaituko dituzte. 337.462 euroko gastuak izanen dituzte. Horri aurre egiteko diru ekarpenak eskatu dituzte. Horiek Laboral Kutxaren ES82 3035 0057 9205 7005 9033 kontu korrontean sar daitezke.

www.iragarkilaburak.eus



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Hiru abesbatza bakar batean bihurtuta

Amati, Ametza eta Irurtzongo abesbatzek kontzertua eskainiko dute gaur, 20:00etan, Irurtzongo San Martin elizan, Trinitate festen barruan. Hiru abesbatzek elkarrekin egin duten kontzertu biraren azken emanaldia izanen da

IRURTZUN

Trinitate festak ospatuko dituzte asteburuan Irurtzunen, eta Irurtzongo Abesbatzak musika-rekin hasiera emanen dio ospakizunei gaur, ostirala, 20:00etan, San Martin elizan. Irurtzongo Abesbatza ez da bakarrik ariko, izan ere, sakandarrekin Ultzamako Amati eta Berriobeitiko Ametza abesbatzak egonen dira. Gaurko kontzertuarekin hirur abesbatzek elkarrekin egin duten denboraldiari amaiera emanen diote. *F. Schubertetik (1797) E. Whitacerrera (1970) musikaren bitarteko ibilbidea* da kontzertuaren izenburua, eta abesbatzeta-ko ahotsak musika instrumentuetz lagunduta egonen dira.

Amati, Ametza eta Irurtzongo abesbatzek koro handi bat sortu dute udaberri honetan. Patxi Martin Huarritz da hirur abesbatzen zuzendaria eta berak proposatu zien elkarrekin aritzea, Juana Urrea Irurtzongo Abesbatzako kideak azaldu duen bezala. Elkarrekin hainbat kontzertu eman dituzte, besteak beste, Artikan, Iraizotzen eta, "berezia", Tarazonan. "Tarazonako katedralean abestu genuen eta, ondoren, batzuk bertan lotara gelditu ginen hurrengo egunean bisita egiteko". Abesbatzeta-ko kideen artean harremanak sendotu zituzten bisita horretan. Urrak gogoratu duenez, hasieran abesbatza bakoitzak bere kabuz abestien entseguak egin zituzten, baina gero hirurak elkartu ziren kontzertu bateratua osatzeko. Antsoainen egiten zituzten entseguak.

Zuzendari berria

Fermin Idareta Goldazarena zen Irurtzongo Abesbatzaren zuzendaria, baina duela bi urte "atxeden" hartzea erabaki zuela esan du Urrak. Orduan, Patxi Martin Huarritzek hartu zuen abesbatzaren batuta. Martin beste bi abesbatzeta-ko zuzendaria zen ere, eta elkarrekin zerbait egitea



Irurtzongo Abesbatza artxiboko argazki batean. ARTXIBOA

"TARAZONAN ABESBATZAKO KIDEEN ARTEKO HARREMANAK SENDOTU GENITUEN"

proposatu zien. Horrela sortu zen *F. Schubertetik (1797) E. Whitacerrera (1970) musikaren bitarteko ibilbidea* kontzertua. "Erronka" bat izan dela dio Urrak. Kontzertu "berezi xamar" dela esan du Irurtzongo abesbatzako kideak: "kontzertua ezberdina eta polita da". Kontzertuarekin "pozik" gelditu direla esan du Urrak. Izan ere, "ahaleginaren" emaitza izan da. Astean hirur egunetan entseatu dute, normalean behin elkartzen zirenean. "Ordu pila bat sartu ditugu".

Hiru abesbatzek musika instrumentuen laguntza izanen dute kontzertuan. Pianoan Berenika Rostockak parte hartuko du eta harizko talde bat ere ariko da. "Asko laguntzen dute, gainera". Iruñeko Joaquin Maya Musika Eskolako hainbat ikasleek parte hartuko dute Irurtzongo kontzertuan. Guztira 60 pertsona

baino gehiago egongo dira elkarrekin San Martin elizako agertoki bihurtutako aldare.

Irurtzongo abesbatza

Irurtzongo Abesbatza 2006an sortu zen bi helbururekin: Irurtzunen abesbatzen inguruko tradizioa sortzea, ordura arte existitzen ez zena, eta, bestetik, abestearen plazerraren inguruan jendea biltzea. Horrela hasi zen, hain zuzen, Juana Urrea abesbatza. Izan ere, "betidanik" gustatu izan zaio abestea, baina aforietan eta lagunekin egiten zuen. Abestea gustatzen zitzaion jende gehiagorekin bildu, eta abesbatza sortu zuten. Azaldu duenez, Irurtzunen beste koro bat dago, elizan aritzen dena, eta Irurtzongo Abesbatzak "beste musika estilo batzuk" interpretatzen ditu.

2016an Irurtzongo Abesbatzak 10. urteurrena ospatu zuen Irurtzuno frontoian egindako kontzertu erraldoi batekin eta abesbatzaren inguruko dokumentalaren aurkezpenarekin. Abesbatza aldatuz joan da: "kide batzuk sartzen dira eta beste batzuk erretiratzen dira". 30 kide inguruk osatzen dute abesbatza.



Trasteando eta Milakolore taldeetako kideak entsegu batean. JABI BERGARA

Musikaren bidez bizitzari mila kolore emanez

Trasteando taldeak elkartasun kontzertua egingen du Milakolore elkarteko kideekin, bihar, 19:30ean, lortian

ALTSASU

Ezaguna da Trasteando musika taldearen izaera solidarioa. Eskaintzen dituen kontzertu bakoitza elkartasun doinu bat da. Besteak beste, Afrikan eta Amerikan aritzen diren Gobernu Kanpoko Erakundeendako edota Nafarroako Janari Bankurako dirua bildu dute. Biharkoa, aldiz, kontzertuare "bereziagoa" egingen dute, Milakolore elkartekoekin ariko direlako. 19:30ean izanen da emanaldia, lortia kultur gunean. Sorpresak egonen direla aurreratu du Kruz Mari Martinez Larrea Trasteando taldeko zuzendariak. Irabaziak, beraz, Milakolore behar bereziak dituzten pertsonen elkarterako izanen dira.

Berezia, ezberdina eta sorpresaz beteta. Trasteando eta Milakolore elkarteko solidarioa deskribatzeko Martinezek erabili dituen hitz errepikatuenak dira. Berezia, izan ere, musikariak musika jarriko dutelako eta, aldi berean, Milakolore elkarteko kideekin elkar eraginean ariko direlako. Ez bakarrik elkarteko kideak, agertokiaren gainean gurasoak, familiak, boluntarioak eta abar ariko dira. Gainera, Javier Bergara, Elur Olabide eta Irantzu Gonzalez kontzertuaren gidariak izanen dira.

Kontzertua bost bloketan banatuta egonen da eta bloke bakoitza gai bati buruz izanen da: familia, boluntarioak, kideak... Trasteandoren ohiko errepertorioa egingen dute, eta hainbat abesti propioak prestatu dituzte

ere kontzertu honetarako. Gainera, Milakoloreko kideei gustatzen zaien abestiak prestatu dituztela esan du Martinezek. Milakolorekoek dantzatu dute, abestuko dute, instrumenturen bat joko dute... Baina Martinezek ez du gehiago aurreratu nahi izan.

Musika

Milakolore elkarteko kideei musika "izugarri" gustatzen zaiela esan du Martinezek. "Desinhibituta sentitzen dira eta beti parte hartzeko jarrera erakusten dute". Hortaz, kontzertu "oso polita" izanen dela esan du. Milakoloreko kideek musikoterapia egiten dute larunbatero Sakana-ko Mankomunitateak antolatutako ikastaroari esker. "Musika guztion laguna da, eta ikusi dugunagatik Milakoloreko kideek asko disfrutatzen dute musikarekin, hain bizitzetan presente dago".

"Mundua oso ezberdina da. Ez dago bakarrik beltza eta zuria, grisak eta kolore asko daude. Normalizatu behar dugu elkarbizitza eta desgaitasunak gure bizitzan barneratu behar ditugu". Bihar Trasteandok eta Milakolorek egingen duten kontzertua bezalako ekimenek elkarbizitza sustatzeko laguntzen dutela esan du Martinezek.

Duela urte bat bururatu zitzaizen Milakolorekoekin kontzertua egitea eta, "nork daki", agian denborarekin heziko den koloretako hazia landatu dute aurtan.



Lakuntzako dantza ikasleak ikuskizunaren kartelerako posatzen. UTZITAKO

Dantza mugimenduekin, Lakuntzatik mundura

'Munduko dantzak' ikuskizuna egingen dute gaur Lakuntzako dantza ikasleek, kultur etxean, 19:30ean

LAKUNTZA

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolak Lakuntzan eta Olaztin delegazioak ditu. Altsasuko eskolara joan gabe dantza garaikidea eta modernoa ikasteko aukera dute taldeek, herritik atera gabe. Lakuntzako dantza eskolako taldea 50 ikaslek osatzen dute. Irakaslea Nerea Llamas dantza-ri altsasuarra da. Eta gaur Lakuntzako dantzariak ikasturte amaierako ikuskizuna egingen dute. Altsasun egin bezala, *Munduko dantzak* emanaldia eskainiko dute, 19:30ean, Lakuntzako kultur etxean.

Lakuntzako kultur etxetik mugitu gabe, dantzaren bidezko munduari buelta emanen dute ikusleek. Izan ere, dantza ikasleek Afrikako, Kubako, Mexikoko, Hawaiiiko, Indiako eta Frantziako *Can-can* dantzez disfrutatzen dute aukera izenen dute. Gainera, eskusibotasunean datorren astean Altsasun egingen den *Azala* ikuskizunaren dantza bat ikusteko aukera ere izanen dute, izan ere, Lakuntzako dantza eskolako "handien" taldeak parte hartuko du ikuskizun honetan, eta aurretik Lakuntzan koreografia eskainiko du.



Euskal dantzatik sortuz

Ikasturteari amaiera emateko Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasleek 'Sorkuntza' ikuskizuna eskaini zuten lortia kultur gunean. Huntza, Ken Zazpi eta abarreko gaur egungo taldeen doinuak jarraituz dantzatu zuten dantzariak, euskal dantza guztiz garaikidea dela erakutsiz. Iñaki Agirre da dantza irakaslea.



Altsasuko lortia kultur gunea Platea Antzoki Sareko kidea da. ARTXIBOA

Kultura sustatzeko diru-laguntzak

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Orokorra ekimen artistikoak eta kulturalak antolatzen dituzte diru-laguntzak banatu ditu eta Sakanako bost udalok jasoko dute. Gainera, Platea sarearen diru-laguntzak ere esleitu dituzte

SAKANA

Herrietan arte eta kultura ekimenak eta jarduerak egitea, antolatzea eta sustatzea da Arte eta Kultura 2019 programaren helburua. Horren barruan, diru-laguntzak banatu ditu Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Orokorra. Guztira, 517.000 euro banatu ditu Nafarroako laurogeita lau udalerritan, eta Sakanako bost herrietako udalak onuradun izan dira: Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olazti.

Diru-laguntzak jasotzeko udalkek hainbat diziplinetako ekimenak antolatu behar dituzte, besteak beste, musika kontzertuak, lirika emanaldiak, antzerkia,

dantza emanaldiak, arte plastikoetako erakusketak, baita zinema eta ikus-entzunezkoenak ere. Diru-laguntza honekin, beraz, kontratazio eta programazio gastuak, egile eskubideengatik sortutako gastuak eta antolatutako ekimenak sustatzeko eta iragartzeko sortutako gastuak kudeatzeko erabili behar dira.

Diru-laguntza honen banaketa Sakanan, beraz, honakoa izan da: Irurtzongo udala 11.189,79 euro, Lakuntzako 2.330 euro, Etxarri Aranatzko 9.761 euro, Altsasukoa 15.901,86 euro eta Olaztikoa 2.300 euro.

Bestetik, programazio kulturalak egiteko diru-laguntzak ere banatu dituzte egunotan. Nafarroako Platea Antzoki Sarearen barruan dauden kultur gune eta antzokietarako bideratutako diru-laguntza da eta kultura programazioetan arte eszeniko eta musikari profesionalak kontratatzen dituzte aukera ematen du.

Nafarroako 29 entitatek jasoko dute diru-laguntza, tartean, Sakanako lau Kultura zerbitzuek: Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olazti. Bi kategoriaz zeuden, biztanleriaren arabera: 10.000 biztanle baino gehiago edo gutxiago. Altsasu lehenengo kategorian sartu dute eta 32.851,95 euro jasoko du; bigarren kategorian Irurtzun -14.431,92 euro-, Etxarri Aranatz -9.691,93 euro- eta Olazti -11.317,43 euro- daude.

Markotegi sariak banatuko dituzte astelehenean

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ikasleendako Markotegi literatura lehiaketa antolatzen du urtero. Sakanako ikastetxeetako ikasleei bideratuta dago eta narrazio, poesia, komiki eta booktube sailak ditu. Astelehenean, ekainaren 17an, sariak banatuko dituzte Lakuntzako kultur etxean, 19:00etan.

Erakusketa bikoitza

Olaztikoko kultur etxean, asteburuan, erakusketa bikoitza ikusteko aukera izanen da. Larunbatean eta igandean Olaztikoko eta Ziordiko pintura eta lentzeria ikastaroetako parte hartzaileek egindako lanak ikusgai egonen dira. Ordutegia honakoa da: larunbatean 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara.





Gaztewood film laburren lehiaketaren lantaldearen zati bat, galaren une batean. UTZITAKOIA



Gaztewood galaren alfombra gorria. UTZITAKOIA

Zinemaren gau handia Altsasun

Gaztewood Altsasuko Gaztetxearen film laburren III. lehiaketaren amaiera festa ospatu zuten larunbatean, Burunda frontoian. Alfombra gorria, izarren pasealekua, glamourra eta umorea izan ziren Zilarrezko Katixak sarien banaketa galan

ALTSASU

Los Angelesekin Hollywood badu, Altsasuk Gaztewood dauka. Gainera, Altsasuko Gazte Asanbladaren irudimenaz, umoreaz, kritikaz eta gertutasunez betetakoa da gurea. Gaztewood Altsasuko Gaztetxearen film laburren III. lehiaketa herrikoia antolatzen zuten aurten Altsasuko Gazte Asanbladak, eta espektatibak apurto dituela esatera ausartzen ez diren arren, arrakastatsua izan dela argi dago. Iortia kultur gunean egindako aurkeztutako film laburren emanaldietarako sarrera guztiak agortu ziren, baita larunbatean ospatu zuten sari banaketa eta lehiaketaren amaiera galarako sarrerak ere. 800 pertsona baino gehiagok bere arropa dotoreenak jantzi zituzten, bakarrik izarren esku dagoen gau batez disfrutatzeko.

Espektazioa bazegoen. Gaztewood galaren gelaurrean, Burunda frontoian sarreran, zabaldu zuten alfombra gorrian jende pila bat bildu zen izarren desfilea ikusteko. Gainera, Altsasuko izarren pasealekua mustu zuten ere, protagonisten sinadura eta guzti. Alfombra gorritik, lehiaketara aurkeztutako film laburretako bi protagonista pasa ziren, baita VIP sarrerak zituztenak ere. Galako jantzi hoberekin agertu ziren gaueko izarrak. Den-dena neurtuta zegoen, ez zen inprobisaziorako puntu bakar bat ere utzi. Edo bai.

ALFONBRA GORRITIK FILM LABURRETAKO PROTAGONISTAK ETA VIP PERTSONAK PASA ZIREN

Hala ere, gaueko benetako protagonistak Zilarrezko Katixak ziren, Gaztewood-eko trofeoak. Azken finean, glamour horren atzean sari banaketa bat zegoen. Gaztewood lehiaketak ere goimailako epaimahaia izan zuen: Nahikari Gonzalez, Beatriz de la Vega, Eva Azpilikueta eta Gorka Angiano. Aurkezleak ere "primerakoak" izan ziren, eta AGAko kideen esanetan "gauzak erraztu zituzten": Juan de la Vega eta Oihana Zubikoa.

Gazteak aktibatzea

Altsasuko Gazte Asanbladaren film laburren lehiaketarekin herriko gazteak aktibatu nahi zituzten. Alde horretatik, beraz, lehiaketa honetan denak irabazle izan dira. Izan ere, AGAko kideek azaldu duten bezala, lehiaketara aurkeztutako 20 film laburretatik ia gehienak Altsa-

suko kuadrillek eginak ziren, eta, bestela, Sakanakoak. Herriko izaera hori lortu dute, beraz.

Baina ezin ahaztu Gaztewood gala sari banaketa bat zela; hortaz, esan daiteke gauak irabazle nabarmen bat izan zuela: Pipe-roxki kuadrillaren *El mundo es tuyo* film laburra. Hiru Zilarrezko Katixa eskuratu zituzten: zuzendaritza hobereana, gizoneko aktore ex aequo Asier Castellano eta Iníto Cid-endako izan zen eta publikoaren saria ere jaso zuten. Bestetik, film labur hoberearen epaimahaiaren saria Milakolore elkarteak eraman zuen *Arima* film laburratik. Olatz Azazeta izan zen emakumezkoen aktore hobereana *Altsasu eta kuadrilla isolatuak* lanatik eta sari berezi bat banatu zuten ere: artista berriaren saria lau urteko Alaitz Razkini eman zioten *Lata baten gorabeherak* film laburrean egindako "lan izugarriatik".

Irudimena eta lana

"Hunkitua ez dakit geunden, barrutik bizi duzunean sentimenduak momentu oro puripurian daude". Hala ere, bai izan ziren bereziki gogoratuko dituzten momentuak, esaterako,

GALAREN IRABAZLE NAGUSIA EL MUNDO ES TUYO FILM LABURRA IZAN ZEN, HIRU SARIREKIN

artista berriari emandako sari berezi hori "eztarrian korapilo bat jartzen zaizun" horietako bat izan zela esan dute AGAko kideek.

Zilarrezko Katixa trofeoen banaketaren tartean Altsasuko Gaztetxearen historia biltzen zuten lau bideo proiektatu zituzten: zer da zuretzat gaztetxea, okupazioa lehendabiziko urteko errepasoa, errepasioaren errepasoa eta "ekitaldi handiak" deitutako kultura arloan antolatutako jardueren errepasoa. Gogoratzeko beste une bat Porrotzek gaztetxeari buruz esandakoa izan zen, "berak esan zituen guzti hau biltzen dituen hitzak".

Izarren gau bat zen, eta Felix Linares agertu ez bazen ere, bai izan zuen "La gaupasa de..." atala. Bertan, film laburretan harapatu dituzten gazapoak eta beste hainbat bitxikeriei buruz hitz egin zuten. Oso barregarria izan omen zen. Oso momentu "arrakastatsua" koreografia izan zen. Atzapar rock-ek jarri zuten zuzeneko musika. "Harrigarria da gazte talde honek duen presentzia eta profesionaltasuna". Harro daude AGAko kideak galan tarte hori eskaintzeagatik.

Ilusioa, konpromisoa, irudimena eta lana. Film laburren lehiaketaren atzean lau hitz horien koktel bat dago. Duela hamar urte egin zen II. Gaztewood-a eta listoia oso altu zegoen. Ez dute konparaziorik egin nahi. Eta ez dira behar.



Xabier Senar Lizarragako Kontzejuko presidentea Bargazpi tabernaren mustutzean.

"Bargazpi taberna bat baino gehiago bada"

Lizerratarren eskaera bat zen: taberna. Eta igande eguerdian mustu zuten, azkenean, Bargazpi taberna. Xabier Senar Lizarragako Kontzejuko presidentearen legegintzaldiaren lorpenetako bat izan da. Baina ez bakarria

A. Alvaro eta E. Ruiz LIZARRAGA

1 Azkenean mustu duzue Lizarragan Bargazpi taberna.

Bageneraman hiru edo lau urte tabernarik gabe. Taberna baino gehiago bada, herriari zerbitzua ematea da. Herri txikia da, eta bizia emango dio. Bi elkarte ditugu, baina elkarteak, elkarteak dira. Taberna denona da.

2 Makina bat buruhauste hau guztia lortzeko.

Denbora asko egon gara honen atzean, hau egiteko. Azkenean landa garapenerako programaren bidez lortu dugu herri honetan horrelako zerbitzu egitea.

3 Auzolana garrantzitsua izan da.

Auzolan asko egin dira, baina ez bakarrik lan fisikoa, baizik eta

gauzak erabakitzeke batzordeak sortu dira. Proiektua egin behar zen eta erabaki behar genuen zer egin behar genuen, zein kolore, nola egin... Irekia izan da eta bakoitzarena dela sentitzeko parte hartzeko aukera izan da.

4 Herritarrek izena erabaki dute.

Hori da. Guk bere garaian herriko etxe guztietara bando

bat bidali genuen eta Bargazpi ez dugu aukeratu kontzeju bezala, aukeratu dugu jendeak aukeratu duelako. Bost edo sei izen aukeran egon ziren, eta izen hori aukeratu dute.

5 Hemendik aurrera taberna zabalik egongo da, eta ondoan dendetxoak zabalduko duzue.

Oraindik ez, martxa hartu arte. Baina gero, iraila aldera, herrian minimo batzuk egoteko denda irekiko da. Jateko gauza batzuk, ogia eta garbitzeko produkturen bat. Oinarrizko gauzak.

6 Legegintza honetan proiektu handienetarikoa izan da, baina beste batzuk bazeuden. Fuerte hasi zineten, gainera.

Egia da bageneukala diru aldetik tartea eta mikro-sarea, argiteri publikoa aldatu eta taberna egin dugu. Hasi ginenean bandoa bidali genuen jendeak zer nahi zuen jakiteko. Azkenean, gu kontzeju izan arren, herriaren babes nahi genuen. Jendeak zer nahi duen jakitea da babes hoberena. Horregatik, galdetegi bat banatu genuen eta jendeak esan zuen taberna nahi zuela, baina, hortaz gain, ikusi behar zen zer behar zeuden herrian eta zer hobetu zitekeen gastuak ekiditeko eta onurak izateko. Mikro-sareekin momentuz gastuak ekidin ditugu, oraingoz errendimendua % 70 da eta fakturan asko nabaritzen da.

7 Gainera, mikro-sareak Lizarraga mapan jarri du.

Heldu den astean Ameriketatik gazte kuadrilla bat etorriko da. Herri txikiak bizitasuna eman behar dute bai jendearendako bai herrian ongi egoteko.

8 Zer moduz joan da Legegintzaldia?

Lan asko egin dugu eta motibazioa egon da. Hori da balio duena. Orain legegintzaldia bukatu da eta, alde batetik, kargua pozik utziko dut. Baina kontzejukide izatea ez da udaletxe batean bezala. Hemen ez daude onura pertsonalik, ez da ordaintzen... Azkenean musu-truk egiten duzu. Denbora asko kentzen dizu. Lau urte egon naiz eta ondoren etorzen denak beste lau urte izango ditu. Guk egin duguna jarraitzen badu, aurrera egingo du.

9 Herritarren erantzuna izan duzu.

Ez da bakarrik jendearen erantzuna. Jendeak auzolanetan lan asko egin du eta hori izan da gure babesa. Ez da bakarrik gure lana kontzejukide bezala, baizik eta jendeak parte hartu duela asko. Auzolanak dira herri txiki hauetan bizitza ematen dutenak. Herritarrak bizi dituelako eta hori berea dela konturatzeko delako.

10 Noren esku utziko duzu kargua?

Unai Navarro izango da hemengo erregidorea eta hiru zinegotzi egongo dira.

11 Larunbatean kargua utzi, eta festak hasten dira ere.

Larunbatean San Adrian festak hasiko dira eta goizetik hasiko gara errepikarekin. Santuaren ermitara igoera egingo dugu eta festa mendian hasiko da, eguraldi ona egiten badu. Bestela, frontoian. Festak bizitzeko modua aldatuko da, ez delako berdin festak karguarekin edo kargurik gabe disfrutatzea. Beti daukazu zerbitzu egiteko.

BAZKIDE ZOZKETA

GARAGARRILLEKO SARIAK:

1. SARIA:
EUREKAI ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN